

ESTATUTOS SOCIALES



LABORAL
kutxa



Batzar Nagusian egindako aldaketa – 2024ko apirilaren 24a

Batzar Nagusian egindako aldaketa – 2022ko apirilaren 8a

Batzar Nagusian egindako aldaketa – 2020ko uztailaren 17a

Batzar Nagusian 57.Bi b) artikuluan egindako aldaketa – 2013ko apirilaren 27a

Fusioaren osteko Estatutu Sozialak (Altxorrean aurkezteko data: 2012ko uztailaren 27a)

I. kapitulua. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.	Izena eta esparrua	1
2. artikulua.	Xedea	1
3. artikulua.	Iraupena eta egoitza soziala	1
4. artikulua.	Hizkuntza ofizialak	2

II. kapitulua. BAZKIDEAK

5. artikulua.	Nor izan daitekeen bazkide	3
6. artikulua.	Onartzeko baldintzak	4
7. artikulua.	Onarpenari buruzko erabakia	4
8. artikulua.	Onarpenaren publizitatea	5
9. artikulua.	Onarpena aurkaratzea	5
10. artikulua.	Erantzukizuna	5
11. artikulua.	Bazkideen betebeharrak	6
12. artikulua.	Bazkideen eskubideak	7
13. artikulua.	Jarduera-erregimena	7
14. artikulua.	Informazio-eskubidea	7
15. artikulua.	Bazkidearen baja	9
16. artikulua.	Kanporatzea	9
17. artikulua.	Diziplina-arauak	11
18. artikulua.	Falten kalifikazioa	11
19. artikulua.	Zigorrak	17
20. artikulua.	Zigor-prozedurak	18
21. artikulua.	Bajaren ondorio ekonomikoak	21
22. artikulua.	Lan-bazkideen probaldia	22
23. artikulua.	Gizarte Segurantzaren erregimena	22
24. artikulua.	Lan-bazkideen barne-antolamendu funtzionala	23
25. artikulua.	Bazkide laguntzaileak	23

III. kapitulua. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA GESTIOA

26. artikulua.	Organo sozialak eta Zuzendaritza	24
27. artikulua.	Batzar Nagusia	24
28. artikulua.	Ohiko eta ezohiko batzar nagusiak.	
	Deialdia	26
29. artikulua.	Batzarraren funtzionamendua	27
29.Bis artikulua.	Bertaratzea eta boto telematikoa	
	Batzar Nagusian	27
30. artikulua.	Boto-eskubidea	28
31. artikulua.	Ordezkaritza-eskubidea	29
32. artikulua.	Erabakiak hartzea	30

Aurkibidea

Orrialdea

33. artikulua.	Batzarraren akta	30
34. artikulua.	Batzar Nagusiaren erabakiak aurkaratzea	31
35. artikulua.	Kontseilu Errektorea	31
36. artikulua.	Kontseilu Errektorearen osaera	34
37. artikulua.	Ezintasunak eta bateraezintasunak	35
38. artikulua.	Kontseilu Errektorearen funtzionamendua	37
38.Bis artikulua.	Bertaratzea eta boto telematikoa Kontseilu Errektorean	37
39. artikulua.	Kontseiluko kideen ordainsariak	38
40. artikulua.	Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizuna	38
41. artikulua.	Kontseilu Errektorearen erabakiak aurkaratzea	38
42. artikulua.	Zuzendari nagusia	39
43. artikulua.	Kontu-hartzaileak	40
44. artikulua.	Errekurtso Batzordea	40

IV. kapitulua. EKONOMIA-ARAU BIDEA

45. artikulua.	Kapital soziala	42
46. artikulua.	Nahitaezko ekarpenak	42
47. artikulua.	Borondatezko ekarpenak	43
48. artikulua.	Ekarpenak nola eguneratuko diren	43
49. artikulua.	Ekarpenak nola eskualdatuko diren	43
50. artikulua.	Sarrera-kuotak	44
51. artikulua.	Bazkide laguntzaileen ekonomia-araubidea	44
52. artikulua.	Ekitaldiko emaitzak	44
53. artikulua.	Soberakinen aplikazioa	44
54. artikulua.	Galerak nola egotziko diren	45

V. kapitulua. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

55. artikulua.	Desegiteko arrazoiak	46
56. artikulua.	Likidazioa	46
57. artikulua.	Sozietatearen ondasunak eta azken balantzea nola esleituko diren	47
58. artikulua.	Azkentzea	48

Lehen Xedapen Gehigarria.	Epeak nola zenbatuko diren	49
----------------------------------	---	-----------

I. kapitulua. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izena eta esparrua

Bat. Caja Laboral Popular Kreditu Kooperatibaren eta Ipar Kutxa Rural Kreditu Kooperatibaren arteko bat-egitearen ondorioz, kreditu-kooperatiba bat eratu da. Haren izena hau da: «Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito», aurrerantzean «Kooperatiba» edo «Entitatea».

Bi. Estatutu hauetan ezarritakoari jarraituko dio, eta, bertan aurreikusten ez diren gaitan, kreditu-kooperatibei buruzko 1989ko maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak ezarritakoari, haren garapen-arauei, orokorrean Kreditu Entitateen jardura arautzen duten legeei eta aplikagarri izan daitezkeen xedapenei. Izaera ordeztalez, Kooperatiben legeria izango zaio aplikagarri.

Hiru. Haren jardura ez da lurralde-esparru batera ere mugatuta egongo.

2. artikulua. Xedea

Haren helburu soziala bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrei erantzutea da, eta kreditu-erakundeek ezaugarri dituzten jardueren bidez egiten du hori. Ondore horretarako, gainerako kreditu-erakundeek egin ditzaketen mota guztietako eragiketa aktibo, pasibo eta zerbitzuzkoak egin ahal izango ditu, baita horien osagarriak edo instrumentalak —inbertsio-zerbitzuak eta laguntza-zerbitzuak barne— eta bere helburu kooperatiboak sustatzeko eta ahalik eta ondoen betetzeko balio dutenak ere. Arreta berezia eskainiko die bere bazkideen finantza-beharrei, eta hirugarrenetik eragiketa aktiboetarako legezko mugak errespetatuko ditu.

Era berean, sozietate-loturak edo partzuergoak eratu ditzake beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin, eta dagozkion merkatu antolatuetako kide izan daiteke (bere araudian onartuta badago), helburu soziala lortzeko garatzen dituen enpresa-jarduerak erraztu eta berrmatzeko helburuarekin.

Bazkide ez diren hirugarrenekin ere jarduerak eta zerbitzuak partekatu ahal izango ditu, eta indarrean den legeriak jasotzen dituenak izango dira muga bakarrak.

3. artikulua. Iraupena eta egoitza soziala

Bat. Kooperatibaren iraupena mugagabea izango da.

Bi. Egoitza Soziala Arrasaten (Gipuzkoan) izango du, Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g.an. Hala ere, udal-mugarte bereko beste helbide batera alda daiteke, Kontseilu Errektoreak erabakitzen badu.

Egoitza sozialean bestelako edozein aldaketa egiteko, Estatutu hauek aldatzeko akordioa beharko da, horietan finkatutako gehiengo bidez.

4. artikulua. Hizkuntza ofizialak

Euskara izango da, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala. Behar diren neurriak hartuko dira gero eta gehiago hedatzen.

II. kapitulua. BAZKIDEAK

5. artikulua. Nor izan daitekeen bazkide

Estatutuetan eta indarrean diren legezko aginduetan finkatuta dauden baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak izan daitezke bazkide.

Horrez gain, Kooperatibako langileak ere izan daitezke lan-bazkide.

Era berean, 25. artikuluan agindutakoa betetzen duten pertsona fisikoak bazkide laguntzaile izan daitezke.

6. artikulua. Onartzeko baldintzak

Bat. Bazkide izan nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek dagokien eskaera aurkeztu beharko dute idatziz. Horretan, estatutu hauek eta ekarpenei eta indarrean diren gainerako akordioei buruzko konpromisoak onartzen dituztela adieraziko dute. Eskaerarekin batera, adinez nagusia izatea edo nortasun juridiko osoa izatea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da, baita egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko dokumentazioa ere. Pertsona fisikoek estatutuetan ezarritako gutxieneko partaidetza-modulua bete beharko dute, etenik gabe, onartzeko eskaera egin baino 12 hilabete lehenago. Orobat, nomina, pentsioa, jarduera ekonomikoak eragindako ordainsariak edo horien pareko aldizkako diru-sarrerak bertan helbideratuta izan behar dituzte.

Bi. Langileek baldintza hauek bete beharko dituzte, lan-bazkide izateko:

- a) Adinez nagusia izatea.
- b) 6 hilabeteko probaldia gainditzea. Probaldian zehar, bai Kooperatibak bai bazkidegaiak aukera izango dute elkarren arteko harremana libreki eteteko.

Dena den, Kontseilu Errektoreak finkatutako lanpostuetan 18 hilabetera artekoa izan daiteke probaldia, lanpostuok betetzeko baldintza profesional bereziak behar direnean. Bi aldeak ados jarritz gero, probaldia murriztu edo kendu egin ahal izango da.

Ez da probaldirik bete behar izango, baldin eta bazkide berriak tarte hori Kooperatiban inoren konturako langile gisa eman badu lanean.

Inoren kontura lanean emandako denbora dagokion probaldia baino laburragoa bada, sozietate-kontratua egindakoan epe hori kontuan hartuko zaio probaldiaren ondoreetarako.

- c) Estatutu hauetan eta indarrean dauden gainerako erabakietan adierazten diren ekarpenei, baldintza soziolaboralei eta gainerako erantzukizun osagarriei buruzko konpromisoak onartzea onarpen-eskabidean.

Hiru. Aurreko bat eta bi ataletan finkaturikoaz gain, bazkidegaiak ezin izango dira berankortasun-egoeran egon Kooperatibarekin.

7. artikulua. Onarpenari buruzko erabakia

Kontseilu Errektoreari dagokio onartzeari buruzko erabakiak hartzea, eta bidezko arrazoia dagoenean bakarrik erabaki ahal izango du ez onartzea. Honako hauetan oinarrituko da onarpena ukatzeko:

- a) Kooperatibaren ahalmen finantzarioan.
- b) Bazkide izan nahi duten entitateen egoera ekonomiko eta sozialari eta gainerako bazkideen jardueretik bateragarritasunari buruzko txosten teknikoetan.
- c) Entitatea zuzendu, administratu, antolatu eta funtzionatzeko lan-bazkide berrien kopuruaren behar objektiboan.
- d) Zuzendaritzak probaldiaren ondoren egindako txostenetan.
- e) Legeak edo estatutuek onarpenaren inguruan galdatutako edozein baldintzaren ez-betetzean.

8. artikulua. Onarpenaren publizitatea

Eskatzailea —pertsona naturala nahiz juridikoa— onartzeko edo ez onartzeko erabakia eskaera jaso eta hurrengo hirurogei egunetan hartuko da, gehienez. Erabakia berehala jakinaraziko zaio eskatzaileari edo haren legezko ordezkariari, eta, era berean, elkartearen egoitza sozialeko iragarki-taulan ikusgai jarriko da. Kontseilu Errektoreak arrazoiak eman beharko ditu, ez onartzea erabakitzen badu.

9. artikulua. Onarpena aurkaratzea

Bat. Eskatzaileak ez onartzeko erabakia aurkaratu ahal izango du Errekurtso Batzordean. Hogei eguneko epea izango du horretarako, Kontseilu Errektoreak erabakia jakinarazi dion egunetik edo Kontseiluak erabakia hartzeko jarrita duen azken egunetik aurrera.

Bi. Aipatutako organo sozialean aurkaratu ahal izango da onarpen-erabakia, betiere onarpen-erabakia ezagutzera eman eta hamar eguneko epean, gutxienez bazkideen ehuneko hamarrek hala eskatzen badu. Eskatzailea ez da bazkide izango, harik eta onarpena aurkaratzeko epea igaro arte edo, aurkaratu bada, Errekurtso Batzordeak erabakia hartu arte.

Hiru. Errekurtso Batzordeak bozketa sekretu bidez ebatziko ditu aurreko bi ataletan aipatutako errekurtsoak. Bi kasu horietan, interesatuari entzun beharko zaio aurretiaz.

10. artikulua. Erantzukizuna

Bazkideek sozietate-zorretan duten erantzukizuna beraien ekarpenetara mugatuko da. Kooperatiban baja hartu duten bazkideei, ordea, erantzukizun hori desagertu egingo zaie, dagozkien likidazioak egin eta ordaindutakoan, eta ezin izango zaie ezer ere eskatu entitateak bazkidea banandu baino lehen egindako zorrengatik.

11. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bat. Bazkideek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Batzar Nagusiaren eta partaide diren gainerako organo kolegiatuen bileretara joatea.
- b) Kooperatibako organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakiak betetzea.
- c) Kooperatibako datuak eta gaiak isilpean gordetzea, baldin eta ezagutzera emanaz gero bidezko interes sozialei kalte egiteko arriskua badago.
- d) Kooperatibaren enpresa-jarduerentzat lehiazkoa izango den lanik ez egitea, Kontseilu Errektoreak berariazko baimenik ematen ez badu.
- e) Eman zaizkien karguak onartzea, ez onartzeko bidezko arrazoirik ez badute.
- f) Kapital sozialari egin beharreko ekarpena aurreikusitako eran eta epeetan ordaintzea.
- g) Helburu sozialarekin zerikusia duten zerbitzu eta jardueretan parte hartzea, baita prestakuntza-jardueretan ere.
- h) Giro ona sustatzea, eta zuzendaritzako kideekiko eta gainerako bazkideekiko harremanetan errespetuz jokatzeko.
- i) Kooperatibaren edo, oro har, Kooperatibismoaren kontra ez hitz egitea jendaurrean eta nahita.
- j) Lege eta estatutuetako gainerako betebeharrak betetzea.

Bi. Entitate elkartekideek, gainera, betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Entitate edo kooperatiba elkartekideek memoriak, balantzeak eta eskatutako antzeko agiri edo datuak igortzea Entitateari, eta, horrek egoki baderitzo, kontabilitatea edo administrazioa ikuskatzeko bidea ematea.
- b) Helburu sozialaren ondoriozko jarduera eta zerbitzuetan parte hartzea. Horretarako, 20.000 €-ko gutxieneko partaidetza-modulua finkatu da aktiboki nahiz pasiboki jarduteko.

Hiru. Pertsona fisikoak diren bazkideentzat, 10.000 €-koa izango da, gutxienez, aktiboki edo pasiboki jarduteko gutxieneko partaidetza-modulua.

12. artikulua. Bazkideen eskubideak

Bat. Honako hauek dira bazkideen eskubideak:

- a) Organo sozialetako karguetarako hautesle eta hautagai izatea.
- b) Batzar Nagusiaren eta partaide diren gainerako organo sozialen erabakietan hitzarekin eta botoarekin parte hartzea, eta proposamenak egin ahal izatea.
- c) Eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar duten informazioa jasotzea.
- d) Kooperatibak bere helburu soziala betetzeko gauzatzen dituen enpresa-jardueretan parte hartzea, inolako diskriminaziorik gabe.
- e) Kapital sozialari egindako ekarpenen ondorioz interesak jasotzea.
- f) Itzulkin kooperatiboa jasotzea.
- g) Kapital sozialari egindako ekarpenak eguneratuta izatea eta bueltan jasotzea.
- h) Lege eta estatutuetan jasotako gainerako eskubideak.

Bi. Lege eta estatutuetako arauen eta Kooperatibako organo sozialek baliozkotasunez hartutako erabakien arabera gauzatuko dira eskubide horiek.

13. artikulua. Jarduera-erregimena

Estatutu hauetan finkatutako betebeharrak eta eskubideei kalterik eragin gabe, Entitateak eta hari elkarturiko entitateek, ados jarritz gero, jarduera-erregimenari buruzko eskubide eta betebeharrak ezarri ahal izango dituzte, eta kasuan kasuko kontratuak sinatuko dituzte horrelakoetan. Kontratu horiek Mondragon Corporación Cooperativarekiko lotura-maila jasoko dute.

14. artikulua. Informazio-eskubidea

Bat. Bazkideek informazio-eskubidea erabili ahal izango dute, Legean, Estatutu hauetan eta Batzar Nagusiaren erabakietan aurreikusitakoei jarraikiz.

Bi. Kontseilu Errektorearen erantzukizuna izango da bazkideei Kooperatibako Estatutuen, Barne Araudiaren eta haietan egiten diren aldaketen kopia bana ematea.

Hiru. Bazkide guztiek dute Kooperatibako bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusiko Akta Liburua irakurtzeko eskubidea. Bazkideren batek eskatzen badu, Batzar Nagusietan hartutako erabakien kopia ziurtatua eman beharko dio Kontseilu Errektoreak.

Halaber, bazkideren batek eskatuz gero, berorrenan —indibidualki edo kolektiboki— eragina duten Kontseiluaren erabakien kopia ziurtatua emango dio Kontseilu Errektoreak.

Lau. Bazkideren batek eskatzen badu, Kooperatibarekiko duen harreman ekonomikoa zertan den erakutsi eta azalduko dio Kontseilu Errektoreak, eta hilabeteko epea izango du horretarako, gehienez.

Bost. Batzar Nagusiak gai-zerrendaren arabera ekitaldi ekonomikoaren kontuak aztertu eta horiei buruzko erabakiak hartu behar dituztenean, dokumentu hauek jarri beharko dira ikusgai Kooperatibaren egoitza sozilean, deialdia ezagutzera eman den egunetik Batzarra egin arte: Balantzea, Galdu-irabazien kontua, Txostena eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamena. Epe horretan, dokumentu guztiak aztertzeko aukera izango dute bazkideek, eta Kontseilu Errektoreari egokitzen hartzen dituzten azalpenak idatziz eskatzeko. Batzarrean emango zaizkie erantzunak; horretarako, Batzarrean aurreko bost egun baliodunetan edo gutxiagotan egin beharko dute eskaera.

Gai-zerrendan ekonomiari lotutako gairik sartzen bada, aurreko paragrafoan adierazitakoak bete beharko dira, baina oinarritzko dokumentazioa Batzarrean aztertu beharreko gai ekonomikoari buruzkoa izango da, eta kontu-hartzaileen txostena ez da beharrezkoa izango.

Sei. Bazkideek Kooperatibaren edozein alderdiri buruz beharrezkotzat jotzen dituzten azalpen eta txostenak eskatu ahal izango dizkiote Kontseilu Errektoreari, idatziz. Idatzia aurkeztu zutenetik zortzi egun igarotakoan egiten den lehen Batzar Nagusian erantzungo die Kontseiluak.

Zazpi. Bazkideen 100eko 10ek edo ehun bazkidek Kontseilu Errektoreari egoki deritzen informazioa idatziz eskatuz gero, Kontseiluak eman egin beharko die, idatziz eman ere, gehienez hilabeteko epean.

Zortzi. Bost, Sei eta Zazpi ataletako kasuetan, eskatu zaion informazioa ez ematea erabaki dezake Kontseilu Errektoreak, betiere Kooperatibaren bidezko interesak arrisku larrian jar badaitezke. Dena den, ezin izango du informaziorik ukatu, baldin eta Batzarrean eman beharrezkoa bada eta bertaratutakoen eta ordezkaturakoen erdiek

baino gehiagok eskatzen badiote, eta, gainerako kasuetan, informazioa eskatu duten bazkideek jarritako errekurtsoren ondorioz, Errekurtso Batzordeak erabaki badu.

Hala ere, Kontseilu Errektoreak erabakitzen badu eskatutako informazioa ez ematea, eskatzaileek erabakia aurkaratzeko eskubidea izango dute beti, Estatutu hauetako 34. artikuluan adierazitako prozedurari jarraikiz.

Bederatzi. Aurreko ataletan bazkideentzat arautu diren eskubideei kalterik eragin gabe, Batzar Nagusiak batzordeak sortu eta arautu ahal izango ditu, Kooperatibaren jardunbideari buruzko ahalik eta informazio gehien lor dezaten bazkideentzat.

15. artikulua. Bazkidearen baja

Bat. Bazkideek edonoiz hartu ahal izango dute borondatezko baja Kooperatiban, baina Kontseilu Errektoreari idatziz jakinarazi beharko diote erabakia, hilabete lehenago, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Erabakia aurretiaz jakinarazteko epea bete ezean, kasuan kasuko kalte-galerak ordaindu beharko dituzte bazkideek. 21. artikuluko laugarren atalean aurreikusitako ondoreetarako, erabakia aurretiaz jakinarazteko epea bukatutakoan emango zaie baja bazkideei.

Bi. Estatutu hauetan aurreikusi ez den eta kostu handiko betebeharrak edo zamak eragin ditzakeen erabakiren bat hartu badu Batzar Nagusiak, erabaki horrekin ados ez egoteagatik bere botoa salbatu duen edo Batzarrean parte hartu ez duen bazkideak baja hartzeko eskubidea izango du, eta baja hori arrazoizkotzat hartuko da. Idatziz egin beharko dio eskaera Kontseilu Errektoreari, eta berrogei eguneko epea izango du horretarako, erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hiru. Bazkideren bat ez badago ados Kontseilu Errektoreak bere borondatezko bajaren kalifikazioari eta eraginari buruz hartutako erabakiarekin, 34. artikuluan aurreikusitako prozesu-arauei jarraikiz aurkaratu ahal izango du erabaki hori. Gainera, aukera izango du aldeztu aurretik Errekurtso Batzordean errekurtsoa aurkezteko. Hilabeteko epea izango du, Kontseilu Errektorearen erabakiaren berri izan duen egunetik aurrera. Errekurtsoa jarritz gero, bertan behera geratuko dira gainerako ekintzen iraungipen-epeak.

Lau. Bazkide izateko eskatzen diren baldintzak galtzen dituen bazkideak utzi egin beharko dio derrigorrez bazkide izateari. Nahitaezko baja Kontseilu Errektoreak erabakiko du, ofizioz eta interesatuari entzun ostean, edozein bazkidek edo bazkide izateko baldintzak betetzeari utzi dionak eskatzen badu.

Bazkidea ados ez badago, Kontseilu Errektorearen erabakiaren kontrako errekurtsoa jartzeko aukera izango du, 16. artikuluko Bi, Hiru eta Lau ataletan gai horretarako zehaztutakoekin bat.

Nahitaezko baja arrazoizkotzat hartuko da, baldin eta baldintzak galtzea ez bada izan bazkidea Kooperatibarekiko betebeharrak nahita saihesten saiatzeagatik edo nahitaezko baja bidegabeko onurak lortzeko erabiltzeagatik. Justifikatu gabeko nahitaezko bajetan, Kooperatibak kasuan kasuko kalte-galerak eskatu ahal izango dizkio bazkideari.

16. artikulua. Kanporatzea

I) FALTA SOZIALENGATIK

Bat. Kontseilu Errektoreak soilik hartu ahal izango du bazkideak kanporatzeko erabakia, betiere Estatutuetan tipifikatutako falta oso astunen bat egin bada. Nahitaezkoa izango da, halaber, horretarako izapidetutako espedientea bideratzea eta aurretiaz interesdunari entzutea.

Kanporatzeko erabakiaren arrazoa bazkideak betebehar ekonomikoak bete ez izana bada, zenbat denbora igaro den kontuan hartu gabe kanporatu ahal izango du Kontseilu Errektoreak bazkidea, baldin eta bere egoera erregularizatu ez badu.

Bi. Bazkideak kanporatzeko erabakiaren kontrako errekurtsua aurkeztu ahal izango du Errekurtsu Batzordean, erabakiaren berri izan eta hilabeteko epean.

Errekurtsu Batzordeak bi hilabeteko epea izango du, aurkezpen-egunetik aurrera, errekurtsuari buruzko erabakia hartzeko, baina interesdunari entzungo dio alde zuzenetik. Epe hori igaro ondoren ebatzi eta jakinarazi ez bada, onartutzat joko da errekurtsua.

Hiru. Kanporatzeko erabakia Errekurtsu Batzordearen berrespena jakinarazitakoan izango da exekutagarria, edo bestela, Batzorde horri errekurtsua jartzeko epea igarotakoan.

Dena den, lan-bazkideen kasuan, Kooperatibak bazkidea lanik gabe utzi ahal izango du, Kontseilu Errektoreak kanporatzeko erabakia hartzen duen unetik aurrera. Hala ere, lanean ari zenean zituen eskubide ekonomiko berberak izaten jarraituko du bazkideak.

Lau. Kanporatzeko erabakia aurkaratzeko aukera izango du bazkideak, 34. artikuluan aurreikusitako prozesu-bideari jarraituz. Hilabeteko epea izango du hori egiteko, eta erabakia exekutagarri bihurtu den egunean hasiko da epea.

II) LANEAN EGINDAKO FALTENGATIK

Bost. Zigor-proposamena kanporatzea bada, erruztatutako bazkideak deskargua egin ahal izango du Kontseilu Errektorearen aurrean, zuzendari nagusiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hogeitaz eguneko epean.

Sei. Kontseilu Errektoreak hogeita hamar egun izango ditu, deskargua jaso duen egunetik aurrera, faltaren kalifikazioa eta zigor-proposamena berresteko edo ez

onartzeko. Alabaina, erabakia hartu aurretik, Kontseilu Sozialeko kideei entzun beharko die.

Zazpi. Kontseilu Errektoreak kanporatzeko erabakia berretsiz gero, bazkideak errekurtsua aurkeztu ahal izango du Errekurtso Batzordean, erabakiaren berri izan eta hurrengo hamabost egunetan.

Zortzi. Kanporatzeko erabakia exekutagarria izan dadin, ezinbestekoa izango da Errekurtso Batzordeak erabakia berrestea edo Kontseilu Errektorean deskargua egiteko eta Errekurtso Batzordean errekurtsua aurkezteko epea bukatuta egotea. Dena den, Errekurtso Batzordeak erabakia hartu arte, bazkidea lanik gabe utzi ahal izango du Kontseilu Errektoreak, baina lanean ari zenean zituen eskubide ekonomiko berberak izaten jarraituko du bazkideak.

Bederatzi. Kontseilu Errektoreak ez badu kanporatzeko proposamena onartzen, egoki deritzon zigorra ezarriko du. Bazkideak horren aurka ere errekurtsua jarri ahal izango du Errekurtso Batzordean, Kontseilu Errektoreak erabakia jakinarazi eta ondorengo zortzi egunetan. Hala ere, zigorra Kontseilu Errektoreak erabaki duen unean bertan izango da exekutagarria.

17. artikulua. Diziiplina-arauak

Erantzukizuneko giro sozial egokia egongo dela ziurtatzeko, eta Kooperatibako bazkideen eta gestio ekonomikoaren artean inolako oztoporik ez sortzeko, diziiplina sozialari buruzko erregimena finkatu dugu. Bi alderdi bereizi ditugu: batetik, falta sozialei ezarriko zaien erregimena, eta, bestetik, lan-bazkideei lanean ari direla egindako faltengatik ezarriko zaiena.

18. artikulua. Falten kalifikazioa

Aurretikoa. Faltatzat hartuko da Kooperatibari eta haren bazkideei aplikagarri zaien kanpo-araudian, Estatutu hauetan eta gainerako barne-arauetan ezarritako eginbehar eta betebehar sozialak lanean ez betetzea dakarren ekintza edo ez-egite oro

Falten mailaketa: Hurrengo puntuetan tipifikatutako faltaren batean edo aurreko paragrafoan oro har ezarritako ez-betetzaren batean erortzen den bazkideak zehapena jaso ahal izango du, Estatutu hauetako 16. eta 20. artikuluetan ezarritako prozeduraren arabera. Hala ere, ados egon ezean, bide jurisdikzionalera jotzeko eskubidea izango du bazkideak, Kooperatibaren barruko bidea agortu ondoren.

Faltaren mailaketa zehazteko, faltaren berezko larritasuna, ondorioen garrantzia eta egintzaren asmoa hartuko dira kontuan, eta, inguruabar horien arabera, arina, astuna edo oso astuna izan daiteke, jarraian tipifikatutakoari jarraituz:

A) FALTA SOZIALEN KALIFIKAZIOA

Bat. Falta sozialak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

Bi. Falta arinak:

- a) Kooperatibaren helburuen ordena eta garapen egokirako ezarrita dauden arauak ez betetzea.
- b) Estatutuetakoa arauak edo funtzionamendu-erregelamendu eta -arauak ezjakintasun desenkusaezinaren ondorioz ez betetzea, betiere falta Estatutu hauek astuntzat edo oso astuntzat hartuta ez badago.
- c) Deia jaso arren, ekintza sozialetara eta, bereziki, Batzar Nagusietara ez joatea, justifikatutako arrazoirik izan gabe.
- d) 11. artikuluko Bi a) atalean aurreikusitako informazioa garaiz ez bidaltzea.

Hiru. Falta astunak:

- a) Hainbat falta arin egitea; entitate elkartuek, hiru urte baino gutxiagoan, eta gainerako bazkideek, urtebete baino gutxiagoan.
- b) Kooperatibaren funtsak 2. artikuluan aurreikusitako kreditu-laguntzak edo bestelakoak eskatzerakoan adierazi direnez bestelako helburuetarako erabiltzea.
- c) Eman zaizkien kargu sozialetan arduraz ez aritzea.
- d) Eman zaizkien kargu sozialak ez onartzea edo dimititzea, Biltzar Nagusiak arrazoi justifikaturik ez dagoela uste badu.
- e) Kontseilu Errektoreak baimenik eman gabe, helburu sozial bera edo antzekoa duen beste entitate bateko kide izatea edo harentzat jardutea.
- f) Kreditu-laguntzen, merkataritza-arriskuen edo sinaduradun bermeen eskaerekin zerikusia duten txosten edo jakinarazpenetan axolagabekeriazko omisioak egitea.
- g) 11. artikuluan aurreikusitako betebeharrak ekonomikoak eta gainerakoak atzeratzea edo ez betetzea.

Lau. Falta oso astunak:

- a) Hainbat falta astun egitea; entitate elkartuek, hiru urte baino gutxiagoan, eta gainerako bazkideek, urtebete baino gutxiagoan.

- b) Kreditu-laguntzen, merkataritza-arriskuen edo sinaduradun bermeen eskaerekin zerikusia duten txosten edo jakinarazpenetan omisioak nahita egitea edo gertakariak faltsutzea.
- c) Bazkideak Kontseilu Errektoreari dagozkion eginkizunak bere gain hartzea.
- d) Kooperatibaren funtzionamendua arautzen duten xedapenak nabarmen haustea.
- e) Beren izaeraren ondorioz Kooperatibaren interes materialari edo izen onari kalte egin diezaieketen jarduerak gauzatzea; esate baterako, konkurrentziako eragiketetan aritzea, Entitateko zuzendari eta ordezkariekin begirunerik gabe jokatzeko, ekarpenetan iruzur egitea eta funtsak bidegabeki erabiltzea.
- f) Bazkide izateaz baliatuta espekulazioko edo legearen kontrako jarduerak gauzatzea.
- g) Kooperatibaren oinarri sozial eta ideologikoen kontra sistematikoki egitea, eta jendaurrean proselitismoa jokatzeko.
- h) Kooperatibako gutun eta dokumentuetako sekretua haustea edo derrigorrez isilpean gorde beharreko datuak ezezagunei adieraztea.
- i) Kolusio-letrak edo igorritako letrak faktura egin aurretik negoziatzea.
- j) Eragiketa aktiboetan interes-tasa hobaritzearen edo arriskuak barkatzearen ondoriozko betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

B) LANEAN EGINDAKO FALTEN KALIFIKAZIOA

Bost. Falta arinak:

- a) Bidezko arrazoirik gabe hilabetearen 4 orduz lanera ez etortzea.
- b) Zabarkeria edo axolagabekeria desenkusaezina, Kooperatibaren interesei kalterik eragin ez badie.
- c) Laneko arriskuen prebentzioaren arloan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horrek arriskuren bat (arina bada ere) sor badezake norberarentzat edo hirugarrenentzat.
- d) Lana bidezko arrazoirik gabe uztea eta lanarekin zerikusirik ez duten izaera arineko jarduerak egitea lanorduetan edo lantokian.
- e) Bazkideari emandako zereginak eta erantzukizunak behar bezala betetzeko oztopo arin diren ekintza edo ez-egiteak.

- f) Lanera ez joateko asmoa aldeztu aurretik edo, dagokionean, hurrengo 24 orduetan ez jakinaraztea, salbu eta ezinezkoa izan dela frogatzen bada.
- g) LABORAL Kutxaren Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean ezarritako eginbeharrak ez betetzea eta jokabide desegokiak izatea (ez-betetze eta jokabide arinak).
- h) Izaera pertsonaleko datuak babestearen eta Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzearen alorretako eginbeharrak ez betetzea (ez-betetze arinak).

Sei. Falta astunak:

- a) Urtebete baino gutxiagoan hainbat falta arin egitea.
- b) Bidezko arrazoirik gabe hilabetean 16 orduz lanera ez etortzea.
- c) Jendearekiko begirunerik ez izatea eta lankideei hitzez edo egitez tratatu txarrak ematea, bai eta, Zazpi atalean falta oso astuntzat tipifikatutako jazarpen moral, sexual eta/edo sexista izan gabe, pertsonen intimitatearen edo duintasunaren aurkako edozein portaera izatea ere, sexua, sexu-orientazioa edo -identitatea, jaiotza, arraza edo etnia, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, gaixotasuna, hizkuntza edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozial oinarri hartuta.
- d) Lotsagabekeriak edo pertsona zein gauzei kalte egiteko moduan protesta egitea, eta falta arinen ondorioz ezarritako zehapenak ez betetzea.
- e) Errendimendurik eza, diziplinarik eza eta mailaz goragokoek lanaren inguruan emandako aginduak ez betetzea.
- f) Laneko arriskuen prebentzioaren arloan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea, baldin eta ez-betetze horrek pertsonen segurtasunerako eta osasunerako arrisku eta kalte larriak eragiten baditu.
- g) Sekretu profesionala haustea, nahiz eta kalterik ez eragin.
- h) Segurtasun-arauak, zibersegurtasunari buruzkoak barne, nahita edo zabarkeriaz ez betetzea, eta beste pertsona batzuen eskura jarritako baliabide material nahiz teknologikoak erabiltzea edo pertsona haien ordez jardutea, baliabide horiek erabiliz.
- i) Agiri, gutun eta datuak baimenik gabe atxikitzea eta ez dagozkien helburu edo erabilerak ematea.
- j) Lan-orduetan lan partikularrak egitea, eta Kooperatibaren tresneria, materialak eta baliabideak norberarentzat erabiltzea.
- k) Bezeroei orotariko kredituak eta arriskuak emateko eta, oro har, ondasunak erosteko, zerbitzuak kontratatzeko eta hirugarrenekin

obligazioak hartzeko ahalmenak eta eskurantzak erabiltzerakoan justifikaziorik gabeko gehiegikeria larriak egitea, eta ahalmen eta eskurantza horiek ez dituztenek justifikaziorik gabe berenganatzea.

- l) Departamentuei edo bulegoei ez laguntzea Kooperatibak egoki funtzionatzeko bete behar dituzten eginkizunak gauzatzen.
- ll) Lana bertan behera uztea, izaera larriz eta bidezko arrazoirik gabe.
- m) Bazkideari emandako zereginak eta erantzukizunak behar bezala betetzeko oztopo larri diren ekintza edo ez-egiteak.
- n) Enpresaren jabetzako bitarteko informatikoak (posta elektronikoa, Internet, intraneta eta abar) lan-prestazioarekin zerikusirik ez duten helburuetarako erabiltzea, baldin eta erabilera horretan emandako denboraren ondorioz bertan behera utzi badira lanari dagozkion funtzioak.
- ñ) LABORAL Kutxaren Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean ezarritako eginbeharrak ez betetzea eta jokabide desagokiak izatea (ez-betetze eta jokabide larriak).
- o) Izaera pertsonaleko datuak babestearen eta Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzearen alorretako eginbeharrak ez betetzea (ez-betetze larriak).

Zazpi. Falta oso astunak:

- a) Urtebete baino gutxiagoan hainbat falta astun egitea.
- b) Bidezko arrazoirik gabe hilabetean 40 orduz lanera ez etortzea.
- c) Kooperatibak emandako funtzioak betetzerakoan edo funtzio horietaz baliatuz, Kooperatibari iruzur egitea, desleialtasunez jokatzeko edo konfiantzaz abusatzea. Halaber, zerbitzuz kanpo Kooperatibarentzat iruzurrezkoak diren ekintzak burutzea.
- d) Sekretu profesionala haustea, baldin eta Kooperatibari edo hirugarrenei kalteak eragin bazaizkie.
- e) Kooperatibaren korrespondentzia, dokumentuak eta datu erreserbatuak faltsutzea, bahitzea edo urratzea, Kooperatibari kalte larriak eragin ahal badizkio.
- f) Ebasketa, lapurreta, bidegabeko jabetzea, maula eta, oro har, Kooperatibarentzat kaltegarriak diren ekintza edo ez-egiteak, eta Kooperatibari zerbitzu ematerakoan egindakoak.

- g) Dolozko edozein delituaren ondoriozko kondena. Salbuespen bakarrak izango dira delituaren izaera berezia kontuan hartuta delitua egin duenarenganako konfiantzan eraginik ez dutenak Kooperatibaren ustez.
- h) Kooperatibaren zerbitzuren bat ematen ari delako edo eman duelako bertako bezeroengandik edo hirugarrenengandik, zuzenean edo zeharka, ordainsariak, hitzemeak, abantailak edo edozelako prerrogatibak gestionatzea zein onartzea, baldin eta, ebaluazioa edo ezaugarriak kontuan hartuta, ez badira pertsonen arteko harremanen ondoriozko afektua eta esker ona erakusteko opari ez-diruzkoak.
- i) Kooperatibaren helburu soziala kontuan hartuta, zuzeneko konpetentzia diren jardura edo lanak gauzatzea.
- j) Lehendakaritzak, Zuzendaritza Nagusiak edo horien ordezkariak baimenik eman gabe lantokiak jendearentzat ixtea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- k) Barne-arrazoietan oinarritutako grebak sustatzea edo egitea.
- l) Lan-alorrean diziplinarik gabe jokatzearen edo mailaz goragokoen aginduak ez betetzearen ondorioz Kooperatibari edo lankideei kalte larriak eragitea. Halaber, falta astunengatik ezarritako zehapenak ez betetzea.
- ll) Bezeroei orotariko kredituak eta arriskuak emateko eta, oro har, ondasunak erosteko, zerbitzuak kontratatzeke eta hirugarrenekin obligazioak hartzeke ahalmenak eta eskurantzak erabiltzerakoan justifikaziorik gabeko gehiegikeria oso larriak egitea, eta ahalmen eta eskurantza horiek ez dituztenek justifikaziorik gabe eta oso modu larrian berenganatzea.
- m) Bazkidearen eta Kooperatibaren irudiaren edo izen onaren kontrako jardueretan nabarmen eta sarri parte hartzea.
- n) Lana bidezko arrazoirik gabe uztea eta lanorduetan izaera oso larriko jardura edo lan pribatuak egitea.
- ñ) Bazkideari emandako zereginak eta erantzukizunak behar bezala betetzeko oztopo oso larri diren ekintza edo ez-egiteak.
- o) Mailaz goragokoek agintekeria oso larriz jokatzeta.
- p) Laneko arriskuen prebentzioaren arloan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horrek lan-istripu larria eragiten badio norberari edo hirugarrenei.
- q) Segurtasun-arauak, zibersegurtasunari buruzkoak barne, nahita edo zabarkeriaz ez betetzea, eta beste pertsona batzuen eskura jarritako baliabide material nahiz teknologikoak erabiltzea edo baliabide horiek

erabiliz pertsona haien ordeztu jardutea, betiere ez-betetze horrek ondorio larriak eragiten badizkie Kooperatibari edo pertsonei.

- r) Sexu-jazarpena, hots, nahi ez duen pertsona batekin hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide sexual izatea, pertsona horren duintasunari erasotzeko helburuarekin edo ondorioarekin, bereziki beldurra, etsaitasuna, degradazioa edo umiliazioa sentiarazten duenean.
- s) Jazarpen moralak (*mobbinga*), hau da, lan-eremuan pertsona baten aurka luzaroan gauzatzen den abusuzko portaera edo indarkeria psikologikoa, helburutzat duena jokabide, egitate, agindu edo hitzen bidez pertsona gutxietea, baztertea edo isolatzea; haren ahalmena deuseztatzea; lanbide-sustapena edo lanpostuko iraupena etetea, eta zuzenean edo zeharka haren duintasunean edo osotasun psikikoan kalte progresiboa eta etengabea eragitea.
- t) Arraza- edo etnia-jatorrian, sexuan, erlijioan edo sinesmenetan, desgaitasunean, adinean edo sexu-joeran oinarrituta egindako jazarpena. Halakotzat hartuko da diskriminazio-kausa horietakoren bati jarraituz gauzatutako edozein jokabide, helburutzat edo ondoriotzat duena pertsona horren duintasunari erasotzea eta beldurra, etsaitasuna, degradazioa edo umiliazioa sentiaraztea.
- u) LABORAL Kutxaren Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean ezarritako eginbeharrak ez betetzea eta jokabide desegokiak izatea (ez-betetze eta jokabide oso larriak).
- v) Izaera pertsonaleko datuak babestearen eta Kapital zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzearen alorretako eginbeharrak ez betetzea (ez-betetze oso larriak).

19. artikulua. Zigorrak

A) FALTA SOZIALENGATIK

Bat. Falta arinengatik:

- . Kontseilu Errektorearen idatzizko kargu-hartzea.
- . Lan-bazkideentzat ezarritako nahitaezko ekarpen minimoaren 100eko 10erainoko diruzko zigorra.

Bi. Falta astunengatik:

- . Idatzizko ohartarazpena. Kontseilu Errektoreak erabakitzen badu, jendeari jakitera emango zaio.
- . Hurrengo bi hauteskundeetan zuzendari edo kontu-hartzaile karguetarako hautagai izateko ezintasuna.

- . Entitateak ezarrita dituen finantza-zerbitzuak eta abar erabili ezin izatea, gehienez urtebeterainoko epean. Dena den, egoera horrek ezin dio kalte konponezinik ekarri.
- . Lan-bazkideentzat ezarritako nahitaezko ekarpen minimoaren 100eko 50erainoko diruzko zigorra.

Hiru. Falta oso astunengatik:

- . Eskubide sozial batzuk galtzea, Kontseilu Errektoreak ezarriko duen epean. Hala ere, epe hori hiru urtekoa izango da gehienez ere. Kooperatiben legeriak aitortzen dituen eskubide etenezinak ezin izango dira zigor horretan sartu.
- . Entitatearen zerbitzuak erabili ezin izatea, gehienez ere hiru urtez. Dena den, horrek ezin izango dio kalte konponezinik eragin.
- . Lan-bazkideentzat ezarritako nahitaezko ekarpen minimoaren 100eko 400erainoko diruzko zigorra.
- . Kanporatzea.

Lau. Aurreko ataletan bazkideari eskubideak kentzearen inguruan adierazi diren zigorrak kasu hauetan soilik ezarriko dira: bazkideak betebeharrak ekonomikoak bete ez dituenean eta jarduera kooperatibizatuetan Estatutu hauetan finkatu bezala parte hartzen ez duenean. Bazkideak bere egoera normalizatu bezain laster bukatuko dira zigorrak.

B) *LANEAN EGINDAKO FALTENGATIK*

Bost. Falta arinengatik:

- . Ahozko kargu-hartzea.
- . Gehienez bi egunez lanik eta lan-aurrerakinik gabe uztea.

Sei. Falta astunengatik:

- . Idatzizko kargu-hartzea.
- . Gehienez hamabi egunez lanik eta lan-aurrerakinik gabe uztea.
- . Kategoriaz igotzeko gaitasunik gabe uztea, gehienez ere hiru urtez.
- . Lan-indizea murriztea, gehienez hiru urtez. 2 hamarrenekoa izango da murrizketaren muga.

Zazpi. Falta oso astunengatik:

- . Gehienez sei hilabetez lanik eta lan-aurrerakinik gabe uztea.

- Kanporatzea.

20. artikulua. Zigor-prozedurak

A) *FALTA SOZIALENGATIK*

Bat. Prozedura.

Falten espedienteetako dokumentu guztien bi ale beteko dira, eta aleetako bat bazkidearen espedientearen geratuko da artxibatuta.

Kontseilu Errektoreak egingo du karguen plegua falta-mota guztien kasuan, eta erruztatutako bazkideari idatziz jakinaraziko dizkio zigorraren behin-behineko kalifikazioa eta zigor-proposamena. Bazkideak deskargua egin eta Kontseilu Errektoreari berari aurkeztu ahal izango dio, kasuan kasuko kalifikazioa eta zigorra finka ditzan.

Falta astuna edo oso astuna bada, bazkideak Kontseilu Errektorearen erabakiaren kontrako errekurtsioa aurkeztu ahal izango du Errekurtsio Batzordean, erabakiaren jakinarazpena jaso eta hogeita hamar eguneko epean.

Bi. Epe orokorrak.

a) Espedientea irekitzeko epeak.

Honako hauek izango dira falten espedientea irekitzeko edo zigor-prozedurari hasiera emateko epeak:

- Falta arinetan, bi hilabetekoa.
- Falta astunetan, lau hilabetekoa.
- Falta oso astunetan, sei hilabetekoa.

Falta egin den egunean hasiko da epea. Zigor-prozedurari hasiera ematen zaionean, epea eten egingo da, eta lau hilabetez ez bada ebazpenik eman eta jakinarazi, aurrera jarraituko du berriro.

b) Faltaren behin-behineko kalifikazioa eta zigor-proposamena jakinarazteko epea.

Epea hilabetekoa izango da kasu guztietan, eta Kontseilu Errektoreak faltaren espedientea irekitzea edo zigor-prozedura hastea erabaki duen egunean hasiko da.

c) Deskargua egiteko epea.

Erruztatutako bazkideak Kontseilu Errektorearen aurrean deskargua egiteko aukera izango du, hilabeteko epean. Faltaren espedientea ireki edo zigor-prozedura hasi dela jakinarazten zaion egunean hasiko da epe hori.

d) Kalifikazioa eta zigorra finkatzeko epea.

Kontseilu Errektoreak hartuko du kalifikazioari eta zigorrari buruzko erabakia, eta hilabeteko epea izango du horretarako, erruztatutako bazkideak deskargua egin duen egunetik aurrera edo, bestela, deskargua egiteko epea bukatzen denetik aurrera.

Hiru. Errekurtsoak.

Bazkideak Kontseilu Errektorearen erabakiaren kontrako errekurtsoa aurkeztu ahal izango du Errekurtso Batzordean, erabakiaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

Errekurtso Batzordeak bi hilabete izango ditu ebazpena emateko, baina, aurretik, interesdunari entzun beharko dio.

Era berean, jakinarazpena jaso eta hurrengo hilabetean, bazkideak aurkaratu egin ahal izango du Kontseilu Errektoreak hartutako zigor-erabakia, edo, hala badagokio, Errekurtso Batzordearen berrespena, 34. artikuluan adierazitako prozesu-bidearen arabera.

Lau. Zigorren exekutagarritasuna.

Kanporatzeetan izan ezik, Kontseilu Errektorearen erabakia bazkideari jakinarazi zaion egunetik aurrera izango dira exekutagarriak zigorrak. Kasuan kasuko faltari zer kalifikazio eta zigor dagozkion adieraziko da jakinarazpenean.

Bost. Zigorrak indargabetzea.

Kontseilu Errektoreak indargabetu ahal izango ditu bete gabe dauden zigorraldiak edo iraganean egindako zigorren oharrak, interesdunak eskatuta, baldin eta iruditzen bazaio bazkideak bere jokabidea zuzendu duela. Kanporatzea izango da salbuespen bakarra.

B) *LANEAN EGINDAKO FALTENGATIK*

Sei. Prozedura.

Falten espedienteetako dokumentu guztien bi ale beteko dira, eta aleetako bat Kooperatibako artxiboan gordeko da, lan-bazkidearen espedientearekin batera.

Zuzendari nagusiak egingo du kargu-orria, zeinaren bidez faltaren behin-behineko kalifikazioa eta dagokion zehapen-proposamena ezagutaraziko baitizkio erruztatutako bazkideari. Bazkideak deskargua egin eta Kontseilu Sozialari aurkeztu ahal izango dio, eta organo horrek erabakiko du zein diren faltaren kalifikazioa eta dagokion zigorra.

Bazkideak Kontseilu Sozialaren erabakiaren kontrako errekurtsua aurkeztu ahal izango dio Kontseilu Errektoreari, eta horren erabakiaren kontrako errekurtsua, era berean, Errekurtsio Batzordeari.

Zigor-proposamena bazkidea lanetik kanporatzea bada, 16. artikuluan zehaztutako prozedurari jarraitu beharko zaio.

Zazpi. Epe orokorrak.

a) Espedientea irekitzeko epeak.

Honako hauek izango dira falten espedientea irekitzeko edo zigor-prozedurari hasiera emateko epeak:

- Falta arinetan, bi hilabetekoa.
- Falta astunetan, lau hilabetekoa.
- Falta oso astunetan, sei hilabetekoa.

Falta egin den egunean hasiko da epea. Zigor-prozedurari hasiera ematen zaionean, epea eten egingo da, eta lau hilabetez ez bada ebazpenik eman eta jakinarazi, aurrera jarraituko du berriro.

b) Kontseilu Sozialari deskargua egiteko epea.

Erruztatutako bazkideak hogeitaz egun izango ditu Kontseilu Sozialari deskargua egiteko.

c) Kontseilu Sozialak erabakia hartzeko epea.

Erruztatutako bazkideak deskargua egin badu, Kontseilu Sozialak hogeita hamar eguneko epea izango du kasuan kasuko kalifikazioa eta zigorra finkatzeko. Epea deskargua aurkeztu zaion egunetik aurrera hasiko da.

d) Kontseilu Errektoreari errekurtsua aurkezteko epea.

Bazkideak Kontseilu Sozialaren erabakiaren kontrako errekurtsua aurkeztu ahal izango dio Kontseilu Errektoreari, jakinarazpena jaso ondorengo zortzi eguneko epean.

e) Kontseilu Errektoreak erabakia hartzeko epea.

Kontseilu Errektoreak hogeita hamar egun izango ditu aurkeztu dioten errekurtsuari buruzko erabakia hartzeko.

f) Errekurtsio Batzordeari errekurtsua aurkezteko epea.

Kontseilu Errektorearen erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean, erabaki horren kontrako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Errekurtsio Batzordeari.

Zortzi. Zigorren exekutagarritasuna.

Zigor guztiak Kontseilu Sozialari deskargua egiteko ezarri den epea bukatutakoan izango dira exekutagarriak, eta, deskargua egiten bada, organo horrek hartutako erabakia jakinarazi den egunetik aurrera.

Bazkideak zigorra aurkaratzen ez badu, Kontseilu Errektoreak erabakitako zigortzat hartuko da ondore guztietarako.

Bederatzi. Zigorrak indargabetzea.

Kontseilu Sozialak indargabetu ahal izango ditu bete gabe dauden zigorraldiak edo iraganean egindako zigorren oharra, interesdunak eskatuta, baldin eta iruditzen bazaio bazkideak bere jokabidea zuzendu duela. Kanporatzea izango da salbuespen bakarra.

21. artikulua. Bajaren ondorio ekonomikoak

Bat. Bazkideak baja hartuz gero, kapital sozialari egindako ekarpenak itzultzeko eskatu ahal izango du —edo haren eskubidedunek—. Horretarako, nahitaezkoa izango da Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea, bai eta gutxieneko kapital sozialak, baliabide propioek edo kaudimen-koefizienteak behar besteko estaldura izatea ere.

Bi. Bajaren unean, bazkideari egotzi beharreko galerak kenduko zaizkio ekarpenen zenbatekoari. Baja hartutako ekitaldi ekonomikoko eta/edo aurreko ekitaldietako galerak hartuko dira kontuan kenketa hori egiteko, betiere bazkideak konpentsatu edo ordaindu gabe baditu.

Hiru. Bazkidearekin hitzartutako gutxieneko epealdia —asko jota bost urtekoa onarpen-egunetik aurrera— ez betetzearen ondorio diren arrazoirik gabeko bajetan, % 30erainoko murrizketa egin ahal izango zaio nahitaezko ekarpenen likidazioaren emaitzari, aurreko ataletan adierazitako doikuntzak egin ondoren.

Lau. Kontseilu Errektoreak finkatuko du ordainketa-epea, baina ez da bost urtetik gorakoa izango, bajaren egunetik aurrera. Bazkidea hilez gero, heriotza gertatu eta gehienez ere urtebetera ordaindu beharko zaie eskubidedunei.

Ordaintzeke dauden zenbatekoak ez dira eguneratuko, eta diruaren legezko interesak kobratzeko eskubidea sortuko dute.

22. artikulua. Lan-bazkideen probaldia

Lan-bazkideek, probaldian daudenean, bazkide diren aldetik dagozkien eskubide eta betebeharrak izango dituzte, salbuespen hauekin:

- a) Bai Kooperatibak, Kontseilu Errektorearen erabakiz, bai probaldian dagoen bazkideak libreki erabaki ahal izango dute elkarren arteko harremana etetea.
- b) Ezin izango dira Sozietatearen organoetako karguetarako hautagai izan.
- c) Ez dira behartuta egongo ez kapital sozialari ekarpena egitera, ez sarrera-kuota ordaintzera, eta ez dira egongo horretarako ahaldunduta.
- d) Probaldian dauden bitartean Kooperatibak galerak baditu, horrek ez du haiengan eraginik izango, eta ez dute itzulkin kooperatiboa kobratzeko eskubiderik izango.

23. artikulua. Gizarte Segurantzaren erregimena

Kooperatibak, bere lan-bazkideek Gizarte Segurantzaren onurak jaso ditzaten, norberaren konturako langileen erregimen berezia aukeratu du. Kooperatibak Gizarte Segurantzaren aurrean obligaziodunaren egoera juridikoa du, eta kuotak ordaintzeko erantzukizun zuzena eta lehena izango du.

Halaber, LagunAro EPSVri egin beharreko ekarpenak ordaintzeko betebeharra bere gain hartzen du Kooperatibak, bere lan-bazkideen mesederako, LagunAro EPSVren Estatutuek eta Prestazioen Erregelamenduak diotenaren arabera, bertan aurreikusitako prestazioak finantzatzeko asmoz, eta, bereziki, honako hauek: ezinduentzako laguntza, osasun-laguntza, aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, enplegu-laguntza, heriotzagatiko laguntza, erretiroa, alarguntasuna eta ezintasun iraunkorra.

24. artikulua. Lan-bazkideen barne-antolamendu funtzionala

Irizpide orokor hauek izango dira lan-bazkideen barne-antolamenduaren oinarriak:

- a) Kontseilu Errektoreak onartuko ditu Kooperatibako egituraren organigrama nagusiak. Horretarako, lanpostu bakoitzaren zereginen eta harremanen deskribapena egin beharko da aurretiaz.
- b) Kontseilu Errektoreak izendatuko du zuzendari nagusia. Departamentuetako zuzendariak eta goi-mailako exekutiboak ere izendatuko ditu, zuzendari nagusiak proposatuta. Helburu soziala betetzeko behar diren gainerako buruak edo exekutiboak zuzendari nagusiak izendatuko ditu.

Jokabide-ildo horretan, ahalik eta autonomiarik handiena erabiliko da, betiere estatutu eta legeetan finkatutako mugak gainditu gabe. Lan-bazkideek mailaz goragokoen kontrako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, bide exekutiboa agortu ondoren, Kontseilu

Errektorera jo. Dena den, horrek ez du esan nahi mailaz goragokoen aginduak betetzetik salbuetsita daudenik.

- c) Lan-bazkide bakoitzari gehienez ere ordainduko zaizkion urteko kontsumo gordinaren aurrerakinak ez dira handiagoak izango Mondragon Corporación Cooperativak unean-unean ezarrita duen gehieneko lan-indizeari dagokion zenbatekoa baino.

25. artikulua. Bazkide laguntzaileak

Bat. Hauek izan daitezke bazkide laguntzaile: bazkide izateari arrazoi justifikaturen baten ondorioz utzi dioten lan-bazkideak eta, lan-bazkide izandako bazkide laguntzaileak hilez gero, haien alargunak.

Bi. Bazkide laguntzaile izateko eskaera idatziz egingo zaio Kontseilu Errektoreari; organo horrek ezezko erantzuna emanaz gero, errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Errekurtso Batzordeari, erabakiaren jakinarazpena jaso ondorengo hogeit egunetan. Ezin izango da, ordea, Errekurtso Batzordearen erabakiaren kontrako errekurtsorik jarri.

Hiru. Bazkide laguntzaileak Kooperatiba bere borondatez edozein unetan uzteko aukera izango du, uzteko erabakia Kontseilu Errektoreari idatziz jakinarazi ondoren.

Bazkide laguntzaileak falta oso astunak egiten baditu, Kooperatibak hura kanporatzeko eskubidea izango du, Estatutu hauetan zehaztutako zigor-prozeduraren arabera.

Lau. Bazkide laguntzaile bakoitzak boto-eskubidea izango du, Estatutu hauetako 30. artikulua agindutakoaren arabera. Hala ere, bazkide laguntzaile guztien botoen baturak ezingo du boto guztien 100eko 30 gaintitu.

Bost. Bazkide laguntzaileek egindako ekarpenek ezin izango dituzte, inolaz ere, kooperatiben legeriak ezarritako mugak gaintitu.

III. kapitulua. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA GESTIOA

26. artikulua. Organo sozialak eta Zuzendaritza

Bat. Hauek dira beharrezko organo sozialak:

- a) Batzar Nagusia
- b) Kontseilu Errektorea

Bi. Kontseilu Errektoreak zuzendari nagusia izendatuko du eta dagozkion ahalmenak emango dizkio, enpresa-trafiko arruntari dagokionez.

Hiru. Zuzendari nagusiak Zuzendaritza Kontseiluaren laguntza eta aholkularitza jasoko ditu. Kooperatibako goi-mailako zuzendariak osatuko dute Kontseilua, eta zuzendari nagusiak zuzenduko. Kideok Kontseilu Errektoreak izendatuko ditu, zuzendari nagusiaren proposamenari jarraikiz.

Zuzendaritza Kontseiluak zuzendaritza-taldearen zereginak koordinatu eta Kontseilu Errektorea aholkatuko du. Hauek dira haren zeregin nagusiak: Kooperatibaren enpresa-garapena aurreikustea, antolatzea eta sustatzea, eta enpresa-gestioa hobetzea.

Lau. Halaber, beste organo berezi bat ere eratuko da: Kontseilu Soziala. Lan-bazkideek Kooperatiban etengabe parte hartzeaz arduratuko da, Organo Sozialei eta Zuzendaritzari alor horretan dagozkien zereginei kalterik eragin gabe. Gainera, Kontseilu Soziala lan-bazkideen ordezkaria izango da barne-erregimeneko organoetan, eta bazkideen nahien bozeramale ere bai.

Kontseilu Errektorearen organo aholkularia izango da, batik bat gai instituzionaletan, eta Zuzendaritza Nagusiarena ere bai, lan-araubideari lotutako gaitan. Alabaina, horrek ez die kalterik egingo ez Kontseilu Sozialak araudi-ekimenetarako izango duen gaitasunari, ez Kontseilu Errektoreak haren esku utziko dituen erabaki-ahalmenei.

Bost. Kooperatibak bere eraginkortasun eta garapenerako egokitzat hartzen dituen organoak sortzeko ahalmena izango du. Zehazki, bere helburu soziala eta enpresa-helburua betetzeko, eragiketa-batzorde bat edo gehiago sortu ahal izango ditu, eragiketa aktiboak bideratu edo arriskuak har ditzaten. Halaber, Errekurtso Batzordea eratu eta kontu-hartzaileak aukeratuko ditu.

27. artikulua. Batzar Nagusia

Bat. Batzar Nagusia bazkideen bilkura da, legez edo estatutuz bereak dituen eskumenei lotutako gaien inguruan hausnartu eta erabakiak hartzeko. Erabaki horiek Kooperatibako bazkide guztientzat izango dira lotesleak.

Bi. Batzar Nagusiak zehaztuko du Kooperatibaren politika orokorra, eta Kooperatibarentzat interesgarria den gai orori buruz eztabaidatu ahal izango du, betiere

eguneko gai-zerrendan badago. Dena den, Kooperatiben Legearen arabera beste organo sozial baten eskumen eskusiboak ez diren gaiei buruzko nahitaezko erabakiak soilik hartu ahal izango ditu.

Hiru. Batzar Nagusiaren eskumen eskusiboa da gai hauek hausnartu eta erabakitzea:

- a) Gestio soziala aztertzea, urteko kontuak eta kudeaketa-txostena onartzea, eta eskura dauden soberakinak ezartzea edo galerak egozte.
- b) Kontseilu Errektoreko kideak, kontu-hartzaileak, kontu-auditoreak, likidatzaileak eta Errekurtso Batzordeko kideak izendatu eta kargugabetzea, eta kontseilarien eta likidatzaileen ordainsaria zehaztea.
- c) Estatutuak aldatzea eta, dagokionean, Kooperatibaren Barne Erregimeneko Arautegia onartu edo aldatzea.
- d) Nahitaezko ekarpen berriak onartzea, kapital sozialerako ekarpenen balioa eguneratzea, bazkide berrien ekarpenak zehaztea, sartzeko kuotak edo aldian behingoak erabakitzea eta kapital sozialerako ekarpenen truke abonatu den interes-tasa finkatzea.
- e) Partaidetza-tituluak eta partaidetza bereziak jaulkitzea.
- f) Sozietatearen bat-egitea, zatiketa, eraldaketa eta desegitea.
- g) Kooperatibaren egitura ekonomikoan, sozialean, antolamenduzkoan edo funtzionalean funtsezko aldaketak eragingo dituzten erabakiak hartzea. Ondore horretarako, funtsezko aldaketatzat joko da onartutako azken balantzean ageri diren aktiboen balioaren edo lan-bazkideen enplegu-mailaren % 25i edo gehiagori eragiten dion aldaketa oro.
- h) Bigarren mailako kooperatibak eta talde kooperatiboak eratzea edo dagoeneko eratuta daudenetan sartzea; bestelako lankidetzak ekonomikoetan parte hartzea, legez galdagarriak diren supostuetan; izaera ordezkatzailea duten erakundeetan kide egitea, eta horietatik bereiztea.
- i) Kontseilu Errektoreko kideen, kontu-auditoreen eta likidatzaileen aurkako erantzukizun-akzio soziala gauzatzea.
- j) Legezko nahiz estatutuetako arau baten ondoriozko ekintzak.

Lau. Legeetako edo estatutuetako arauen arabera aginduzko erabakia behar duten egintzetan, Batzar Nagusiaren eskumena ezin izango da beste inoren esku utzi. Legearen arabera kooperatiba-talderen baten esku uzteko modukoak diren eskumenak izango dira salbuespen bakarrik.

28. artikulua. Ohiko eta ezohiko batzar nagusiak. Deialdia

Bat. Batzar nagusiak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke.

Bi. Ohiko Batzar Nagusiaren helburu nagusiak honako hauek dira: gestio soziala aztertzea, urteko kontuak onartzea —bidezkoa bada—, soberakinak edo galerak nola egotzi erabakitzea eta Kooperatibaren politika orokorra finkatzea. Ohiko Batzarraren gai-zerrendan, haren helburu nagusiarekin zerikusia dutenak ez ezik, Kooperatibaren beste edozein gai ere sar daiteke.

Hiru. Gainerako batzar guztiak ezohikoak izango dira.

Lau. Ohiko Batzar Nagusia Kontseilu Errektoreak deituko du, ekitaldi ekonomikoa ixten den egunaren ondorengo sei hiletan.

Bost. Kontseilu Errektorearen ekimenez egingo da Ezohiko Batzar Nagusirako deia, edo bestela, 500 bazkidek edo Sozietatearen erroldako 100eko 10ek eskatuta, edo Kontseilu Sozialak eskatuta, gutxienez organo horretako kideen bi herenek erabakitzen badute.

Batzarrerako deia egiteko eskaerarekin batera, gai-zerrenda eman beharko da. Kontseilu Errektoreak ez badio eskaerari erantzuten hogeita hamar eguneko epean, agintaritza judizialarengana jo eta deialdia egiteko agindua eman dezala eskatzeko eskubidea izango dute eskatzaileek.

Sei. Batzar Nagusirako deiaren berri emateko, iragarkia jarriko da Kooperatibaren helbide sozialean eta bere jarduera garatzen duen zentro guztietan. Gainera, Kooperatibaren jarduera-eremuan oso hedatuta dauden bi egunkaritan ere argitaratuko da, Batzarra egin baino hamabost egun baliodun lehenago, gutxienez.

Kooperatibaren helbide sozialean eta zentroetan, Batzarra egin baino hamabost egun lehenago argitaratuko da deialdia, gutxienez. Iragarkiak edo jakinarazpenak, gehienez ere, bi hilabete lehenago egingo dira.

Zazpi. Deialdietan datu hauek adierazi beharko dira gutxienez: data, lehen edo bigarren deialdia den, eta bileraren ordua eta lekua. Halaber, gai-zerrenda ere zehatz-mehatz eta argi adieraziko da.

Lehen eta bigarren deialdiaren artean, ordu-erdiko tarteak utzi beharko dira.

Zortzi. Kontseilu Errektoreak finkatuko du gai-zerrenda. Dena den, gai hauek ere sartuko dira zerrendan: kontu-hartzaileek proposatutakoak, bazkideen 100eko 5ek edo 200 bazkidek edo gehiagok proposatutakoak eta Kontseilu Sozialak, gutxienez kideen bi herenek erabakita, eskatutakoak. Kontseilu Errektoreari idatziz helarazi behar zaizkio gai horiek. Proposamenak edozein unetan aurkeztu ahal izango dira, baina deialdia ezagutzera eman osteko zortzigarren eguna amaitu aurretik aurkeztutakoak bakarrik aztertuko dira egiten den lehen Batzarrean. Kontseilu Errektoreak, hala badagokio, Batzarra egin baino gutxienez lau egun lehenago argitaratuko du gai-zerrenda berria, deialdietarako ezarrita dagoen eran.

Bederatzi. Helbide sozialaren udalerrian edo Kooperatibak beste lantoki batzuk dituen udalerrietako batean egingo dira Batzarrak.

29. artikulua. Batzarraren funtzionamendua

Bat. Bazkideen erdiak baino gehiago bertan edo ordezkatuta badaude, Batzar Nagusia lehen deialdian eratuko da; gutxienez bazkideen 100eko 5 edo 100 bazkide bertaratu badira, berriz, bigarren deialdian.

Bi. Presidenteak zuzenduko du Batzar Nagusia; presidentea ez badago, berriz, Kontseilu Errektoreko presidenteordeak, eta, hori ere ez badago, Batzar Nagusiak aukeratutako kide batek. Kontseilu Errektoreko idazkaria arituko da idazkari-lanetan, edo, bestela, estatutuen arabera dagokion ordezkaria. Ordezkaria ere bertan ez badago, Batzarrak aukeratuko du idazkaria.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera Batzarrean presidente edo idazkari izango direnengan eragin zuzena duten gaiak badaude gai-zerrendan, Batzarrak erabakiko du nork beteko dituzten zeregin horiek.

Edonola ere, presidentearen lana izango da eztabaidak zuzentzea, Batzarra behar bezala garatzen dela bermatzea eta Legeak eskatutako betebeharrak formalak betearaztea.

Hiru. Bozketa sekretuak egingo dira organo sozialetako kideak hautatzeko edo kargugabetzeko, organo horietako kideen kontrako erantzukizun-ekintzak gauzatzeko edo ekintza horiei amore eman zein uko egitea erabakitzeke. Gai-zerrendako edozein punturi buruzko erabakia ere bozketa sekretu bidez hartuko da, Batzarrera joandako bazkideen 100eko 20k eskatuz gero.

Lau. Gai-zerrendako puntuetako bat kargu sozialak aukeratzea bada, Batzarraren lehen ordu-erdian bozkatu ahal izango dute bazkideek. Horretarako, hauteskunde-mahaia eratuko dute Kontseilu Errektoreko kide batek eta kontu-hartzaile batek.

Bost. Kooperatibak behar bezala funtzionatzeko bazkide ez den norbait ere Batzar Nagusian egotea komeni bada, parte hartzeko deia egingo dio Kontseilu Errektoreak. Bazkide ez direnek hitza izango dute, baina ez botorik. Dena den, Batzarrean dauden erdiek kontrako botoa ematen badute, ez dute Batzarrean parte hartzerik izango.

29.Bis artikulua. Bertaratzea eta boto telematikoa Batzar Nagusian

Kontseilu Errektoreak hala erabakitzen badu, bazkideek eta gainerako pertsona legitimatuek baliabide digitalen bidez bertaratu eta parte hartu ahal izango dute Batzar Nagusian, baita boto-eskubidea erabili eta eskuordetu ere, dela baliabide telematikoen bidez soilik, dela aurrez aurreko bertaratzearekin batera, betiere alderdi hauek bermatzen badira:

- a) Bazkideen, haien ordezkarien eta bilkurara bertaratzeko diren gainerako pertsonen nortasuna eta legitimazioa.
- b) Komunikazioen segurtasuna eta edukia.
- c) Batzar Nagusia denbora errealean transmititzea, irudiaren eta soinuaren noranzko biko komunikazioaren bidez, bazkide guztiek parte har dezaten eztabaida eta erabakietan. Kooperatibak beharrezko neurriak hartu beharko ditu baliabide horien eraginkortasuna bermatzeko.
- d) Bozkatzeko mekanismoa, igoeraren nortasuna eta, dagokionean, botoaren konfidentzialtasuna.

Era berean, Kontseilu Errektoreak mekanismo digitalak ezarri ahal izango ditu Batzar Nagusia aurrez aurre bertaratzeko diren pertsonen botoaren konfidentzialtasuna bermatzeko, beharrezkoa den kasuetan.

Deialdiaren iragarkiak argibideak emango ditu bertaratuaren erregistroa eta zerrenda egiteko, haiek euren eskubideak gauzatzeko eta bileraren aktan behar bezala jasota uzteko jarraitu beharreko tramite eta prozedurei buruz.

Kontseilu Errektoreak honako hau erabaki ahal izango du, bereziki: legearen arabera baliabide telematikoen bidez parte hartu nahi duten pertsonen esku-hartzeak eta erabaki-proposamenak Kooperatibara igortzea Batzar Nagusia eratu baino lehen. Batzar Nagusian informazio-eskubidea erabiltzen duten bazkideei eman beharreko erantzunak idatziz emango dira, Estatutuaren edo Batzar Nagusiaren Erregelamenduan aurreikusitako gehieneko epearen barruan.

Idazkariak bertaratuak guztien nortasuna egiaztatu dela jasoko du aktan.

Batzar Nagusia baliabide digitalen bidez soilik egiten bada, bilkura egoitza sozialean egin dela ulertuko da. Eta, baliabide digitalen bidez zein aurrez aurre egiten bada, bilkura egin den lekuan.

30. artikulua. Boto-eskubidea

Bat. Bazkide bakoitzak boto bat izango du. Gainera, bazkideren batek bere bazkide-motari dagokion gutxieneko nahitaezko kapital-ekarpena baino ekarpen handiagoa egin badu, beste boto bat izango du, nahitaezko ekarpenik handiena egin behar duen bazkide-motaren gutxieneko nahitaezko ekarpenaren zenbatekotik gora jarritako 2.000 euroko.

Edozein modutan ere, bazkide bakoitzak boto guztien % 20 izango du gehienez, pertsona juridikoen kasuan, eta % 2,5, berriz, pertsona fisikoen kasuan.

Bi. Honako bazkide hauek ezin izango dute botorik eman:

- a) Zigor baten ondorioz botoa emateko eskubiderik gabe geratu direnak.

- b) Erruztatutako bazkideek, beren diziplina-espedienteari buruzko errekurtsua ezagutzea eman ondoren.
- c) Kontseilu Errektoreko kideek, baldin eta bozketaren bidez haien kontrako erantzukizun-ekintzak gauzatu ala ez bozkatu behar bada, edo ekintza horiei amore eman edo uko egiteko erabakia hartu behar bada.
- d) Ukitutako bazkideek, Batzar Nagusiaren baimena behar denean Kontseilu Errektoreko edozein kiderekin, kontu-hartzaileekin, zuzendariarekin edo odol- edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideekin obligazioak hartzeko, bazkide-izaerarekin zerikusi zuzena duten Kooperatibarekiko harremanen kasuan izan ezik.
- e) Kapital sozialerako nahitaezko gutxieneko ekarpena egin ez duten bazkideek.

Hiru. Batzar Nagusirako deia egin baino lehen, zenbat boto sozial dauden eta bazkide bakoitzari zenbat dagozkion zehaztu beharko du Kontseilu Errektoreak. Horretarako, aurreko ekitaldi ekonomikoko azken egunean bazkideek kapital sozialari eginda zituzten ekarpenak hartuko ditu kontuan.

31. artikulua. Ordezkaritza-eskubidea

Bat. Bazkideek beste bazkide batzuk eskuordetu ahal izango dituzte, euren izenean Batzar Nagusira joateko eta bozkatzeko, artikulua honetan xedatutakoaren arabera.

Bi. Batzar Nagusiaren gai-zerrendari heldu aurretik, bertaratutakoen zerrenda egingo da, langile laguntzaileak, lan-bazkideak eta gainerako bazkideak bereizita. Gainera, talde horietako bakoitzean, bertaratutakoak eta ordezkaturakoak ere bereiziko dira. Kontu-hartzaileek erabakiko dute ordezkariak egokiak diren.

Hiru. Honako hauek ezin izango dira beste bazkide baten ordezkari izan:

- a) Zigor baten ondorioz botoa emateko eskubiderik gabe geratu direnak.
- b) Bozketan interes-gatazkaren bat dutenak.
- c) Kargu sozialak dituztenak.

Lau. Ordezkaritza-agiria ezeztagarria, izenduna eta idatzizkoa izango da beti. Gainera, gai-zerrenda osoa izango du, baita botoa emateko argibideak adierazteko atal bat ere. Deialdia argitaratu ondoren eta Batzarraren egunaren aurretik egin beharko da. Ordezkaritari botoa emateko argibiderik eman ez bazaio, egokiena iruditzen zaiona egingo du bozketa bakoitzean.

Bost. Bazkide bakoitzak bi boto-ordezkaritza izan ditzake gehienez, bereaz gain. Bestalde, ordezkapenen bidez jasotako botoen eta bere botoaren baturak ezin izango ditu gainditu kreditu-kooperatibei buruzko legeriak finkatuta dituen boto-mugak.

32. artikulua. Erabakiak hartzea

Bat. Hauteskundekoak ez diren erabakiak hartzeko, baliozkotasunez emandako botoen erdiak baino gehiago beharko dira.

Bi. Bertaratuta zein ordezkatuta dauden boto guztien bi hereneko gehiengo indartua behar izango da indarrean den legeak ezarritako erabakiak zein honako hauek hartzeko:

1. Eraldaketa, bat-egitea edo zatiketa, bereizketa, desegitea, berrabiaraztea, aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala, beste kreditu-erakunde batzuk eskuratzea eta, oro har, egiturazko edozein aldaketa edo antzeko emaitza duen beste edozein eragiketa.
2. Kooperatiba-talde, babes-sistema instituzional edo kooperatiboa ez den beste banku-talde batean sartzea edo baja hartzea.
3. Kooperatibaren izaera juridikoa aldatzen duen edozein.
4. Helburu eta helbide soziala eta/edo azpiegoitza operatiboa kokatuta dauden udalerritik kanpoko beste leku batera aldatzea, kasu honetan izan ezik: aldaketa horren ondorioz helbide sozialaren udalerrria azpiegoitza operatiboarena izatea eta alderantziz. Kasu horretan, aski izango litzateke legez eskatutako gehiengoa, erabakia hartzeko.
5. Estatutuetako beste edozein aldaketa.

33. artikulua. Batzarren akta

Bat. Batzar Nagusiko idazkariak egingo du bilkuraren akta, eta datu hauek adierazi beharko ditu: bileraren lekua, eguna eta ordua; gai-zerrenda; zenbat bazkide bertaratu diren; lehen edo bigarren deialdian eratu den; aztertu diren gaien laburpena; aktan jasotzeko eskatu duten bazkideek esandakoa; zein erabaki hartu diren eta zein izan diren bozketen emaitzak.

Bi. Bilkuraren akta Batzar Nagusiak berak onetsi ahal izango du, amaitu eta gero, edo bestela, Batzar Nagusiko presidenteak eta Batzarrean bertan aukeratutako hiru bazkidek, hamabost egunen buruan.

Edonola ere, Batzarreko idazkariak Batzar Nagusiaren Akta Liburuan jasoko du akta.

Hiru. Batzar Nagusiaren erabakiak hartu diren unetik aurrera hasiko dira eragina izaten.

Lau. Erabakiak inskribagarriak direnean, eskumeneko erregistroetan aurkeztu beharko dira, bertan inskribatzeko. Kontseilu Errektoreak izango du horren erantzukizuna.

34. artikulua. Batzar Nagusiaren erabakiak aurkaratzea

Bat. Batzar Nagusiaren erabakiak kasu hauetan aurkara daitezke: Legearen edo Estatutuen kontrakoak direnean eta, bazkide batek edo gehiagok onurak lortzeko, Kooperatibaren interesei kalte egiten zaienean.

Indargabetutako edo beste batek baliozkotasunez ordezkaturako erabaki sozialak ezin dira aurkaratu.

Bi. Legearen kontrako erabakiek ez dute baliorik izango. Aurreko paragrafoan adierazi diren gainerako erabakiak baliogabetu ahal izango dira.

Hiru. Baliorik gabeko erabakiak aurkaratzeko ekintzak urtebetean iraungiko dira. Arau horretatik kanpo daude arrazoiari edo edukiari begira ordena publikoaren kontrakoak diren erabakiak.

Baliogabetu daitezkeen erabakiak aurkaratzeko ekintzak berrogei egunean iraungiko dira.

Lau. Bazkide guztiek, Kontseilu Errektoreko kideek, kontu-hartzaileek, Errekurtso Batzordeak eta bidezko interesa frogatzen duten hirugarrenek izango dute baliorik gabeko erabakiak aurkaratzeko legitimazioa.

Honako hauek izango dute baliogabetu daitezkeen erabakiak aurkaratzeko legitimazioa: Batzarrean egondako bazkideek, baldin eta aktaren edo bilkuraren ondorengo 48 orduetan egindako agiri fede-ematearen bidez erabakiaren kontra daudela jakinarazten badute; Batzarrean egon ez direnek; botoa emateko eskubidea bidegabeki kendu zaienek; Kontseilu Errektoreko kideek eta kontu-hartzaileek.

Bost. Kapital Sozietateen Legearen testuategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Errege Lege Dekretuak finkaturako prozesu-arauak beteko dira gai honetan.

35. artikulua. Kontseilu Errektorea

Bat. Kontseilu Errektorea kide anitzeko organoa da, eta berari dagozkio, gutxienez, goi-mailako kudeaketa, zuzendarien gainbegiratzea eta Kooperatibaren ordezkaritza, legeari, estatutuei eta Batzar Nagusiak ezarritako politika orokorrari jarraituz.

Legeak eta Estatutuek beste organo sozial batzuei ematen ez dizkieten ahalmenak Kontseilu Errektorearen esku egongo dira.

Bi. Kontseilu Errektoreak berariazko ahalmen hauek ditu:

- a) Bazkideak onartu eta kargugabetzea, Estatutu hauetan zehaztutakoaren arabera.
- b) Kooperatiba erantzukizun osoz ordezkatzeta edonolako ekintza eta kontratuetan.
- c) Zuzendari nagusia, areako zuzendariak, departamentu-zuzendariak eta kooperatibak parte hartzen duen administrazio-organoetan beraren ordezkari diren pertsona fisikoak izendatzea eta kargugabetzea, eta haien ahalmenak, betebeharrak eta ordainsariak zehaztea.
- d) Langileak kontratatzea, plantillak osatzea eta betebeharrak, aginpideak, fidantzak, aurrerakinak eta gainerako ordainsariak zehaztea.
- e) Kooperatibaren jarduna antolatu, zuzendu eta ikuskatzea, eta Batzar Nagusiari Kooperatibaren Barne Araudia proposatzea.
- f) Kooperatibaren helburu soziala betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintzak eta kontratuak gauzatzea, barne harturik ondasun higiezinak eskuratu eta besterentzea, eskubide errealak eratzea —hipotekarena eta errentamendu bereziarena barne—, eta Estatutu hauek Kooperatibari baimentzen dizkieten era guztietako negozioak eta eragiketak egitea.
- g) Kooperatibarentzat onuragarriak izan daitezkeen kreditu- edo mailegu-eragiketak adostea, baldin eta Batzar Nagusiaren eskumenekoak ez badira.
- h) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean bermeak ematea, eta eskubidez onartutako tituluak, zor publikoa eta balore higigarri eta higiezinak erostea, saltzea, izenpetzea eta gordetzea. Gainera, egoki irizten dion moduan eragin ahal izango die.
- i) Kapital sozialari borondatez egindako ekarpenen jaulkipenak onartzea, baita haien eta dagozkien harpidetzen baldintzak ere, indarreko araudiak onartzen dituen aukeren eta baldintzen barruan.
Ordaindukoak, bonuak eta obligazioak (arruntak, hipoteka-bermedunak edo beste mota batekoak), zedulak, hipoteka-transmisioko ziurtagiriak edo errenta finkoko beste edozein balore (tasa finkokoak edo aldakorrekoak, negoziagarriak ala ez) jaulkitzea, pasibo hautagarrien gutxieneko errekerimendu-ratioan (MRELn) konputagarriak izateko baldintzak bete ahal badituzte, edo ez, eta, oro har, beste edozein finantzaketa-formula erabiltzea, partaidetza-tituluak eta partaidetza bereziak izan ezik.

Hori guztia hiru baldintza hauekin:

- Erabakiak funtsezko aldetarrik ez eragitea Kooperatibaren egitura ekonomikoan, sozialean, antolamenduzkoan edo funtzionalean, Estatutu hauetako 27. artikuluko Hiru g) atalean ezarritakoaren arabera.

- Kontseilu Errektoreak onartutako i) atalean zehazten diren jaulkipen-kontzeptu guztiei dagokienez, indarrean dagoen gehieneko kopuruak ez gainditzea onartutako azken balantzeko aktiboen balioaren % 25.
 - Bileran dauden Kontseilu Errektoreko kideen bi herenetik gorako gehiengoarekin onartzea.
- j) Erabilgarri dauden funtsak, baita Erreserbakoak eta Heziketakoak eta Sustapenekoak ere, zertan inbertitu zehaztea, Batzar Nagusiaren erabakiak betez; aurrekontuak prestatzea, gastuak onartzea eta Kooperatibaren ahalduak eta ordezkariak izendatzea, kasu bakoitzean komenigarriak iruditzen zaizkion eskumenak emanez.
- k) Urteko Ohiko Batzar Nagusiari galdu-irabazien kontua, balantzea eta Kontseilu Errektoreak ekitaldi sozialean egindako gestioari buruzko azalpen-txostena aurkeztea, eta soberakin garbiak nola banatu proposatzea.
- l) Ohiko eta ezohiko batzar nagusiak deitzea, eta bertan hartutako erabakiak betearaztea.
- m) Erabakitzea Kooperatibaren alde zer eskubide eta akzio erabiltzea komeni den, bai epaitegi eta auzitegi arruntetan edo berezietan, bai estatuko, erkidegoetako lurralde-administrazioetako, probintzietako edo udalerrietako bulego, agintaritza, korporazio eta organismoetan, eta helegite ohiko eta ezohikoak jartzeko komeni diren erabakiak hartzea. Horrelakoetan, ordezkariak, prokuradoreak edo abokatuak izendatuko ditu eta, kooperatiba ordezkariak eta defenda dezaten, beharrezko ahalmenak emango dizkie (behar den eran), honako hauetan bat etorri edo uko egiteko ere: adiskidetzetan, espedienteetan, auzietan, erreklamazioetan, helegiteetan eta edozein motatako jarduketetan. Helburua da, prozedura dagoen egoeran egonda, eten dezaten eskatzea eta behar den guztia egitea, baita zabaltasun osoz onarpen judiziala ematea ere.
- n) Kooperatibaren funtsak eta ondasunak erabili, eskatu, jaso eta kobratzea, hala partikularrei nola bulego publikoei, Kutxa Orokorreko gordailuak irekiz edo itxiz; interes sozialari komeni zaion tokietan, bankuko kontu korranteak eratzea (eskudiruzkoak, kredituzkoak edo balorezkoak) eta horietatik eskudirua edo baloreak ateratzea, eta, oro har, nazioko edo atzerriko entitateekin era guztietako banku-eragiketak egitea (baita Espainiako Bankuan ere), korrespontsalen esku dauden Kooperatibarenak erabiltzea eta kanbio-letrak egin, endosatu, abalatu, onartu, ordaindu eta negoziatzea.
- o) Pertsona jakin batzuei botereak ematea, helburu jakin batzuetarako edo negozio sozialaren adar jakin batzuk zuzentzeko.

- p) Estatutu hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak argitzea eta omisioak konpontzea, eta, gero, horien berri ematea egiten den lehen Batzar Nagusian.
- q) Estatutu hauetan bereziki adierazita daudenak.

Hiru. Kontseilu Errektorearen ahalmenak ezagutzera ematea izan da aurreko ataleko zerrendaren xede bakarra. Beraz, zerrenda horrek ez ditu Kontseiluaren ahalmenak inola ere mugatuko Legeak Kooperatibako beste organo batzuen esku bereziki uzten ez dituen alderdietan.

36. artikulua. Kontseilu Errektorearen osaera

Bat. Kooperatibako Kontseilu Errektoreak 14 kide izango ditu gutxienez, eta 15 gehienez. Hala dagokionean eta legearen aginduz Kooperatiba 15 kide izatera behartuta badago, azken kide hori Kooperatibako langilea izango da, kontratu mugagabea duena. Ezin izango da beste entitate bateko jarduneko langile izan, ezein tituluren bidez ere, eta gainerako kontseilarien agintaldi eta araubide berberak izango ditu. Era berean, kooperatiben legerian aurreikusitakoen arabera hautatu eta kargugabetuko da.

Kontseilu Errektoreko 4 kide lan-bazkideen artean izendatuko dira.

Bazkide ez diren pertsona kualifikatuak eta adituak kontseilari izendatu ahal izango dira, baina horien kopurua ezin da kontseilari guztien herenera iritsi. Pertsona horiek ezin dira presidente edo presidenteorde izan, eta kontseilari independenteen kalifikazioa izango dute euren agintaldi osoan.

Bi. 37. artikuluan aurreikusitako debekuren baten eraginpean ez dauden bazkideak soilik aukeratu ahal izango dira Kontseilu Errektoreko kide. Kontseilaria pertsona juridikoa bada, pertsona fisiko bat aukeratu beharko du karguari dagozkion funtzioak bete ditzan.

Ezingo dira kontseilari izan, ezta hautagai ere, Kooperatibako Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduren eskuliburuan ezarrita dauden egokitasun-irizpideen eta -prozeduren arabera Kooperatibaren barne-egokitasunaren balorazioa gainditzan ez duten pertsonak. Horrenbestez, baloratze-prozesua behar bezala osatzeko behar den denbora izateko, ezinbestekoa izango da hautagai izan nahi dutenek entitateari jakinaraztea, aurkeztu nahi duten hauteskunde-prozesuarenaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.

Era berean, ezingo dira hautagai izan aurrehautagaitza epez kanpo aurkezten dutenak, Batzar Nagusiaren Araudiko 25. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hiru. Batzar Nagusiak aukeratuko ditu kontseilariok, bozketa sekretuaren bidez eta boto-kopururik handienaren arabera.

Lau. Presidente-, presidenteorde- eta idazkari-karguak hautatuko dira. Kontseilu Errektorarako hautatutakoek egingo dute aukeraketa, euren artean.

Bost. Kontseilu Errektoreko kideak 5 urterako aukeratuko dira. Dena dela, Batzar Nagusiak nahi adina aldiz hautatu ahal izango ditu berriro, iraupen bereko epealdietarako. Ezin izango dira hautatu edo berrautatu aukeraketa egingo den Batzar Nagusiaren egunean 70 urte edo gehiago dituzten pertsonak. Kontseilariak agintaldia amaitzen zaienean aldatuko dira, bakoitzaren hautaketa-data aintzat hartuta.

Sei. Kontseilariak uko egin ahal izango diete beren karguei. Uko-egitearen ondorioz Kontseilu Errektorea baliozkotasunez osatzeko kide nahikorik ez badago, Batzar Nagusia deituko da, eta kontseilariak jardunean jarraitu beharko dute, bilkura egin eta hautatuek benetan kargua hartu arte.

Aurrekoa eragotzi gabe, oro har, agintaldia amaitzen duten kontseilariak beren karguan jarraituko dute, harik eta haiek ordezteko titular gisa aukeratutako pertsonak kargua hartu arte. Espainiako Bankuaren egokitasun-balorazioa gainditzen dutenean hartuko dute kargua kontseilari berriek, eta erakunde haren Goi Karguen Erregistroak kontseilari berriak inskribatu direla jakinarazten duenean edo une oro indarrean dagoen araudiaren arabera egokia denean.

Zazpi. Kontseilu Errektoreko kideak edozein unetan kargugabetu daitezke, Batzar Nagusiak legeak eskatzen duen gehiengoz erabakitzen badu.

Zortzi. Presidente aldi batez ez badago, presidenteordeari dagokio hura ordezkatzea. Idazkaria ez dagoenean, kontseilari gazteenak hartuko du haren tokia.

Bederatzi. Kontseilu Errektoreak Ikuskaritza Batzordea, Izendapenen Batzordea, Ordainsarien Batzordea eta Arrisku Batzordea izendatuko ditu bere baitan, bai eta Kooperatibaren gobernantza egokirako komenigarritzat jotzen dituen beste batzorde batzuk ere.

Batzorde horien eskumenak, osaera, egitura eta funtzionamendua Kontseilu Errektorearen erregelamenduan arautuko dira; betiere, unean-unean indarrean dagoen eta batzorde bakoitzak nahitaez bete behar duen araudiaren arabera.

37. artikulua. Ezintasunak eta bateraezintasunak

Bat. Ezingo dira Kontseilu Errektoreko kide izan:

a) Kooperatibaren jarduerekin lotutako eginkizunak dituzten administrazio publikoetako goi-karguak eta gainerako langileak, betiere ez badira, hain zuzen, lan egiten duten erakunde publikoaren ordezkariak.

b) Batzar Nagusiaren baimenik gabe Kooperatibaren jardunarekiko lehiazkoak edo osagarriak diren jarduerak gauzatzen dituztenak beren edo inoren kontura.

c) Adin txikikoak eta Batzar Nagusiak kontseilariak aukeratu behar dituen egunean 70 urte edo gehiago dituztenak.

d) Porrot eginak eta birgaitu gabeko konkurtsopekoak, legeak ezinduak, kargu publikoetarako gaitasuna kenduz kondenatuak, legeak edo sozietate-xedapenak larriki ez betetzeagatik eta, batik bat, jabetzaren kontrako delituengatik kondenatuak eta, azkenik, diziplina-espediente bidez kreditu-erakundeetako kontseilari eta zuzendari izateko gaitasuna kenduta dutenak.

e) Beste kreditu-erakunde batzuetako kontseilariak, administratzaileak eta goi-zuzendariak, kapital sozialean parte hartzen dutenak izan ezik.

f) Lau erakunde baino gehiagotako administrazio-organoetako kideak.

Ondore horietarako, ez dira kontuan hartuko:

- Kreditu-erakundeen administrazio-organoetako postuak, baldin eta interesatua, ezkontidea edo aurreko nahiz ondorengo ahaideak, batera zein banaka, kapital soziala administrazio-kontseiluko kide-kopuruarekin zatituz ateratzen den zenbatekoa baino akzio gehiagoren jabe badira.
- Helburu bereziki komertzialik ez duten erakundeetako karguak, hala nola ongintzako erakundeetakoak, irabazteko asmorik gabeko bestelako erakundeetakoak eta administrazio-organoetako kideen zein haien senitartekoen interes ekonomiko pribatuak kudeatzeko helburu bakarrarekin sortutako enpresetakoak, betiere administrazio-organoko kidearen eguneroko gestioa eskatzen ez badute.

Kargu bakartzat hartuko dira talde bereko entitateetan betetzen diren kargu guztiak.

- g) Beren kabuz edo beste pertsona edo entitate batzuen izenean Entitatearekin mugaeguneratutako edonolako zor galdagarriak dituztenak, edo karguan daudela Kooperatibarekin dauzkaten betebeharrak betetzen ez dituztenak.
- h) Egokitasun-balorazioa gainditzen ez dutenak, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan eta Estatutu hauetako 36. artikuluan ezarritako irizpide eta prozeduren arabera.

Bi. Zuzendari nagusia ezin da Kontseilu Errektoreko kide izan, karguak bateraezinak baitira. Bateraezintasunak haien odol- edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailara arteko senideengan ere izango du eragina. Kontu-hartzaileak eta Errekurtso Batzordeko kideak ere ezin dira Kontseilu Errektoreko kide izan, karguak bateraezinak direlako.

Hiru. Inor ezin da hiru kooperatiba-elkarte baino gehiagoko kontseilu errektoreetako kide izan aldi berean.

Lau. Kontseiluko kideren edo zuzendariren bati artikulua honetan zehaztutako debekuren bat egokituz gero, berehala geratuko da kargugabetuta, edozein bazkidek eskatuta; dena dela, erantzun egin beharko die jokaera desleiala dela-eta izan ditzakeen erantzukizunei. Karguen artean bateraezintasunak badaude, horietako bat aukeratu beharko du pertsonak, bigarren kargurako hautatu ondorengo bost egunetan. Hori egiten ez badu, bigarren izendapenak ez du baliorik izango.

38. artikulua. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua

Bat. Kontseilu Errektoreak hilean behin egingo du ohiko bilera. Dena den, aparteko deialdia ere egin dezake, presidentearen ekimenez edo kideetako bik, zuzendari nagusiak edo Kontseilu Sozialak —kide gehienek arrazoitutako eskaera bidez— eskatzen badute. Eskaerari hamar eguneko epean erantzuten ez bazaio, eskaera aurkeztu duenak bilerarako deia egiteko eskubidea izango du, baina, horretarako, gutxienez Kontseiluko kideen herenak berarekin bat etortzea lortu beharko du.

Bi. Presidenteak egingo ditu Kontseilu Errektorearen bileretarako deiak, aurreko atalean aurreikusitako kasuan izan ezik. Zuzendari nagusiari, Kooperatibako teknikariei eta gai sozialak egoki bideratzeko interesa dutenei ere egin ahal izango die bileran parte hartzeko deia.

Hiru. Kontseiluko kideen erdiak baino gehiago agertzen badira, Kontseilua baliozkotasunez eratutzat joko da. Kontseiluko kideek ezingo dute ordezkariarik bidali.

Lau. Erabakiak hartzeko, nahitaezkoa izango da boto baliodunen erdiak baino gehiago lortzea, indarrean dagoen legerian aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du. Presidentearen botoak ebatziko ditu berdinketak.

Bost. Bilera-aktetan, eztabaiden laburpenak, erabakien testuak eta bozketen emaitzak jasoko dira, eta presidenteak eta idazkariak sinatuko dituzte.

38.Bis artikulua. Bertaratzea eta boto telematikoa Kontseilu Errektorean

Kontseilu Errektoreko kideek urrutitik bertaratu, parte hartu eta bozkatu ahal izango dute kontseiluaren bileretan, baita, dagokionean, beren batzorde betearazle edo delegatuenetan ere, dela baliabide telematikoen bidez soilik, dela aurrez aurreko bertaratzearekin batera. Kooperatibak beharrezko baliabideak jarri beharko ditu haien eskura, dagozkien eskubideak erabil ditzaten. Kasu horretan, behar bezala bermatuko dira bertaratuen nortasuna, komunikazioen segurtasuna eta edukia, irudiaren eta soinuaren noranzko biko eta denbora errealeko transmisioa, boto-eskubidea erabiltzeko mekanismoa eta botoaren konfidentzialtasuna.

Era berean, presidenteak mekanismo digitalak ezarri ahal izango ditu Kontseilu Errektorearen bilkuretara aurrez aurre bertaratzen diren kontseilarien botoaren konfidentzialtasuna bermatzeko, beharrezkoa den kasuetan.

Batzar Nagusia baliabide digitalen bidez soilik egiten bada, bilkura egoitza sozialean egin dela ulertuko da. Eta, baliabide digitalen bidez zein aurrez aurre egiten bada, bilkura egin den lekuan.

39. artikulua. Kontseiluko kideen ordainsariak

Kontseilu Errektoreko kideek ordainsaria jaso ahal izango dute zuzeneko kudeaketako lanak egiten dituztenean eta/edo bertaratze-dietengatik, arduraldiaren eta erantzukizunaren osagaietan oinarrituta, osoko bilkuretan eta batzorde zein karguetan parte hartzen dutenean. Kontseilu Errektoreak berak hartutako erabakien arabera banatuko ditu dieta horiek bere kideen artean, betiere Batzar Nagusiak kontseilari guztientzat finkatzen dituen urteko ordainsarien gehieneko zenbatekoaren barruan.

Kooperatibak kontseilariarentzako erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu ahal izango du bere kontura.

40. artikulua. Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizuna

Kontseilu Errektoreko kideek eragindako kalteei dagozkien erantzukizunak finkatzeko, sozietate anonimoetako administratzaileentzat xedatutako arauei jarraituko zaie. Batzar Nagusiak gehiengo arruntaren bidez hartu beharko du erantzukizun-ekintza gauzatzeari buruzko erabakia, eta, gainera, ez da beharrekoa izango puntu hori gaitzerrendan egotea.

41. artikulua. Kontseilu Errektorearen erabakiak aurkaratzea

Bat. Ustez baliogabeak diren eta baliogabetu daitezkeen Kontseilu Errektorearen erabakiak aurkaratu ahal izango dira, haiek hartu ondorengo hilabeteetan eta bi hilabeteetan, hurrenez hurren. Aurkaratzailea Kontseiluko kidea bada, erabakia hartu den egunean hasiko da aurkaratzeko epea, eta gainerako kasuan berriz, horren berri izan duten egunean, betiere erabakia hartu zenetik urtebete igaro ez bada.

Bi. Bazkide guztiek eta aldeko botoa eman duten zein abstenitu diren Kontseilu Errektoreko kideek izango dute erabaki baliogabeak aurkaratzeko eskubidea.

Honako hauek izango dute baliogabetu daitezkeen erabakiak aurkaratzeko ekintzak bideratzeko eskubidea: Kontseiluaren bilerara joan eta aktan erabakiaren kontra daudela jakinarazi dutenek, bileran izan ez direnek, botoa emateko eskubidea bidegabeki galdu dutenek, kontu-hartzaileek eta bazkideen % 5ek.

Hiru. Gainerako alderdiei dagokienez, Batzar Nagusiaren erabakiak aurkaratzeko ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

42. artikulua. Zuzendari nagusia

Bat. Kontseilu Errektoreari dagokio zuzendari nagusia izendatu, kontratatu eta kargugabetzea. Edozein unetan kargugabetu ahal izango du, Kontseiluko kideen erdiek baino gehiagok erabakiz gero. Edonola ere, 65 urte betetakoan, zuzendari nagusiak kargua utzi egin beharko du.

Bi. 37. artikuluan zehaztutako ezintasunen edo bateraezintasunen bat dutenak ezin dira zuzendari izan. Zuzendari nagusiak ezin du kargu bera edo baliokidea izan beste kreditu-erakunde, kooperatiba edo merkataritza-sozietate batean, eta ezin da kontseiluko kide ere izan, betiere Kooperatibaren ordezkartzan ez bada.

Hiru. Eman dizkioten ahalmenak izango ditu zuzendariak. Honako hauek izango ditu, gutxienez:

- a) Kooperatibaren ohiko norabideari eta trafikoari dagozkien gaiak.
- b) Urteko Gestio Plana eta Plan Estrategikoa egin eta Kontseilu Errektoreari proposatzea; horretarako ekintzak finkatu eta garatzea.
- c) Langileei, inbertsioei, finantzei eta marketinari buruzko politikak finkatu eta proposatzea; haiek gauzatzeko erabakiak hartzea eta behar diren neurriak ezartzea.
- d) Departamentuetako zuzendarien eta goi-exekutiboen inguruko izendapenak eta kargugabetzeak proposatzea Kontseilu Errektoreari; helburu soziala betetzeko behar diren gainerako buru eta exekutiboak izendatzea.
- e) Era guztietako administrazio- eta ezarpen-egintzak burutzea, eta era guztietako eskubideak eta ondasunak salerostea.
- f) Bazkideak edo soldatapeko langileak kontratatzea, eta kasuan kasuko kontratuak sinatzea.
- g) Kooperatiba edozein agintariren eta, oro har, hirugarrenen aurrean ordezkatzeta.
- h) Ahalordeak ematea Kooperatibako bazkideen, langileen eta hirugarrenen alde.
- i) Batzar Nagusiak eta Kontseilu Errektoreak emandako jarraibideak garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren bestelakoak.

Zuzendari nagusiaren eskumen izango dira, halaber, presidenteari Kontseilu Errektorarako bilera-deia egiteko eskatzea eta hirugarrenekin eragiketak egiteko erabakiak hartzea, betiere 13/1989 Legearen 4.2 artikuluan zehaztutako mugak gainditu gabe.

43. artikulua. Kontu-hartzaileak

Bat. Batzar Nagusiak hiru kontu-hartzaile titular eta hiru ordezeko aukeratuko ditu, bozketa sekretuaren bidez eta boto-kopururik handienaren arabera.

37. artikuluan debekatzen diren kasuetan ez dauden bazkideak soilik aukeratu ahal izango dira kontu-hartzaile. Bazkidea pertsona juridikoa bada, 36.Bi artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

Bi. Kontu-hartzaileak hiru urtez arituko dira jarduera horretan, baina nahi beste aldiz aukeratu ahal izango dituzte berriro.

Hiru. Kontu-hartzaileek ez dute ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango euren kargua betetzeagatik, baina konpentsazioa emango zaie karguak eragindako gastuengatik.

Lau. 40. artikuluan erantzukizunei buruz adierazitakoa aplikatuko zaie kontu-hartzaileei, baina haien erantzukizuna ez da solidarioa izango. Kontu-hartzaileak ezin dira zuzendari, Kontseilu Errektoreko kide eta Errekurtso Batzordeko kide izan, karguak bateraezinak baitira, eta bateraezintasunak haien odol- edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailara arteko senideengan ere izango du eragina.

Bost. Kontu-hartzaileek eginkizun eta ahalmen hauek izango dituzte:

- a) Batzar Nagusirako emandako ordezkartzen baliozkotasunari buruz erabakitzea, eta Batzar Nagusiaren erregelamenduan organo sozial horren funtzionamenduari buruz ezarritako gainerako funtzioak gauzatzea.
- b) Kontseilu Errektoreari ohiko Batzar Nagusirako deia egiteko eskatzea, ekitaldia itxi denetik 6 hilabete igaro badira eta deia egin ez bada.
- c) Ezohiko Batzar Nagusia egiteko eskatzea.
- d) Batzar Nagusiko gai-zerrendarako proposamenak egitea.
- e) Batzar Nagusiaren erabakiak legearen edo estatutu hauen kontrakoak direnean, aurkaratzeko ekintzak abiatzea.
- f) Aplikagarri den legeriatik eratorritako gainerakoak.

44. artikulua. Errekurtso Batzordea

Bat. Errekurtso Batzordea sortuko da, ondorengo izapideak egiteko eta ebazpenak emateko:

- a) Kontseilu Errektoreak bazkideei ezarritako zigorren kontrako errekurtsoak.
- b) Kontsumo-aurrerakina zehazteko orduan Kontseilu Errektoreak hartutako erabakien aurka Kontseilu Sozialak jarritako errekurtsoak.
- c) Kooperatiben legerian eta Estatutu hauetan aurreikusitako gainerako errekurtsoak.

Errekurtso Batzordearen erabakiak derrigorrez betetzekoak izango dira.

Bi. Errekurtso Batzordeak hamabi kide izango ditu. Batzar Nagusiak aukeratuko ditu, modu paritarioan, lan-bazkideen taldean eta gainerako bazkideen artean, bozketa sekretuaren bidez.

Kontseilu Errektoreko kideak, Kontseilu Sozialekoak, Zuzendaritza Batzordekoak eta kontu-hartzaileak ezin dira Errekurtso Batzordeko kide izan, eta bateraezintasunak Kontseilu Errektoreko kideen eta kontu-hartzaileen odol- edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailara arteko senideengan ere izango du eragina.

Batzordeko kideek presidentea eta idazkaria aukeratuko dituzte euren artetik.

Hiru. Kontseiluko kideak lau urte egongo dira karguetan, baina berriro aukeratu ahal izango dituzte.

Lau. Errekurtso Batzordearen erabakiak baliozkoak izateko, nahitaezkoa izango da kideen erdiak gehi bat egotea bileran.

Bertaratutakoen gehiengo soila izango da erabakiak hartzeko oinarria, eta kideek ezin izango dute beren botoa beste inoren esku utzi. Bozketetan berdinketa badago, presidentearen botoak erabakiko du emaitza, diziplinaren alorreko erabakiak hartu behar direnean izan ezik.

Bost. Batzordeko kideek epaile eta magistratuentzat finkatuta dauden arrazoi berak izango dituzte abstentzio eta ezespenetarako.

Sei. Presidenteak eta idazkariak sinatuko dituzte bilera-aktak, eta horiek erabakien testua jasoko dute.

Erabaki horiek, borondate sozialaren isla diren aldetik, berehala betetzekoak eta behin betikoak izango dira. Dena den, agintari judizialaren aurrean errekurtsoa jartzeko aukera egongo da, Batzar Nagusiak hartutako erabakien kasuan bezala.

IV. kapitulua. EKONOMIA-ARAU BIDEA

45. artikulua. Kapital soziala

Bat. Kapital soziala bazkideen ekarpen nahitaezko eta borondatezkoek osatuko dute.

Bi. Gutxieneko kapital soziala hamar milioi eurokoa izango da, eta erabat ordainduta egon beharko du.

Hiru. Ekarpenak titulu izendunen bidez abonatu dira, eta ehun euroko balio nominala izango du bakoitzak. Dena den, titulu anizkoitzak ere jaulki ahal izango dira, baina ez dira balore-titulutzat hartuko.

Lau. Bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoak ezin izango du kapital sozialaren % 20 gainditu, pertsona juridikoa denean, eta % 2,5, pertsona fisikoa denean. Kooperatiba-sozietate ez diren pertsona juridikoen ekarpen guztiak ez dira kapital sozialaren % 50etik gorakoak izango.

Bost. Ordaindutako ekarpenek interesak sortuko dituzte, eta Batzar Nagusiak finkatuko du intereson tasa, betiere, lege ezarrita dagoen gehiengoa gainditu gabe.

Sei. Ekarpenak itzultzeko, baldintza hau bete behar da: gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak eta kaudimen-koefizientea beharrezko kopurutik behera ez geratzea. Kapital sozialerako ekarpenak itzultzeko, dena den, Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartu beharko du aurrena.

Zazpi. Kontseilu Errektoreak uko egiten badio ekarpenen bat itzultzeari, ekarpen horrek ez du ordaindua izateko inolako lehentasunik izango, ez ordenari ez zenbatekoari dagokienez, Kooperatibaren gainerako ekarpen-ordainketen aldean.

46. artikulua. Nahitaezko ekarpenak

Bat. Bazkide-mota eta bazkideek Kooperatibarekin duten jarduera-maila kontuan hartuta finkatzen dira gutxieneko nahitaezko ekarpenen zenbatekoa eta dagokien titulu-kopurua. Hauek izango dira zenbatekoak:

- a) Pertsona fisikoak: 2.000 €
- b) Pertsona juridikoak: 10.000 €.
- c) Lan-bazkideak: 13.000 €.

Bi. Harpidetzeko unean osorik ordaindu beharko dira gutxieneko nahitaezko ekarpenak. Lan-bazkideak izango dira salbuespen bakarra, harpidetzeko unean 100eko 25 ordaindu beharko baitute, eta, gainerakoa, gehienez ere bi urtean.

Hiru. Batzar Nagusiak finkatuko ditu, urtean behin, bazkide berrientzako gutxieneko nahitaezko ekarpenak.

Lau. Batzar Nagusiak nahitaezko beste ekarpen batzuk ere finkatu ahal izango ditu, eta zenbatekoak, ordaintzeko epeak eta baldintzak ere ezarriko ditu.

47. artikulua. Borondatezko ekarpenak

Batzar Nagusiak eta Kontseilu Errektoreak kapital sozialerako borondatezko ekarpenak onar ditzakete. Erabakian, gehieneko zenbatekoak eta harpidetzeko baldintzak eta epeak jasoko dira. Harpidetzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, erabakia hartu den egunetik zenbatzen hasita.

48. artikulua. Ekarpenak nola eguneratuko diren

Bat. Zuzenbide komuneko sozietateentzat finkatuta dauden baldintza eta onura berak erabiliko dira Kooperatibaren Balantzea eguneratzeko, Batzar Nagusiaren erabakiari jarraituz.

Bi. Gainbalioa erabiltzeko ezarritako baldintzak bete ondoren Batzar Nagusiak erabakitzen badu, bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenen balioa eguneratzeko edo nahitaezko zein borondatezko erreserba-funtsak handiagotzeko erabiliko da gainbalio hori, ekitaldi batean edo hainbat ekitalditan. Egoki irizten zaion proportzioa finkatuko da, eta ez dira gaitutuko balantzeak eguneratzeari buruzko araudietan erabilgarritasunerako ezarrita dauden mugak. Hala ere, konpentsatu gabeko galerak egonez gero, horretarako erabiliko da gainbalioa, lehenbizi.

49. artikulua. Ekarpenak nola eskualdatuko diren

Bat. Ekarpenak inter vivos eskualdagarriak dira, baina baldintza batekin: ekarpena jasotzen duena bazkide izatea edo eragiketa egin osteko hiru hilabeteetan bazkide bihurtzea.

Horretarako, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Eskualdaketa egin ondoren, bazkide eskualdatzailearen ekarpena unean-unean indarrean dagoen gutxieneko ekarpenaren parekoa izatea gutxienez.
- b) Eskualdaketaaren helburua ez izatea bazkide berri batek nahitaezko ekarpena egitea.
- c) Bazkide eskuratzailerak ez gaitutzea kapital sozialerako ekarpenen mugak.
- d) Ekarpenak eskualdatzeko asmoa Kontseilu Errektoreari jakinarazi beharko zaio, gutxienez hilabete lehenago, organo horrek legeen eta estatutuen arabera aplikagarri diren mugak eta baldintzak betetzen direla egiazta dezan.

Bi. Ekarpenak mortis causa oinordetza bidez eskualdatu ahal izango dira, baina nahitaezkoa izango da eskubidedunak bazkideak izatea edo sei hilabete baino lehen bazkide egitea.

50. artikulua. Sarrera-kuotak

Batzar Nagusiak urtean behin erabakiko du zenbateko sarrera-kuota ordaindu beharko duten bazkide berriek, baina kuota hori ezin izango da nahitaezko ekarpenen 100eko 25 baino handiagoa izan.

Legezko xedapenei jarraikiz, kuota hori banaezina den Nahitaezko Erreserba Funtsean sartuko da.

51. artikulua. Bazkide laguntzaileen ekonomia-araubidea

Bat. Lan-bazkideentzat une bakoitzean finkatuta dagoen nahitaezko ekarpena ordaindu beharko dute bazkide laguntzaileek gutxieneko nahitaezko ekarpen gisa.

Bi. Bazkide laguntzaileek ez diote ekarpen gehiago egin behar izango kapital sozialari. Halaber, ez dute izango ez borondatezko ekarpenik egiterik, ez laguntzaile ez diren bazkideen ekarpenak eskualdaketa bidez eskuratzerik.

Hiru. Gainerako bazkideentzat finkatutako baldintza berak erabiliko dira bazkide laguntzaileen ekarpenak eguneratzeko.

Lau. Ez dute itzulkinak jasotzeko eskubiderik izango, baina ezarritako interesa sortuko dute.

52. artikulua. Ekitaldiko emaitzak

Emaitzen kontuko saldoa zehazteko, gainerako kreditu-erakundeetako irizpide berak erabiliko dira, eta hirugarrenekin egindako eragiketen ondoriozko emaitzak eta gainbalioak nahiz edonolako ezohiko emaitzak ere hartuko dira kontuan. Gainera, Kreditu Kooperatibei buruzko Legearen eta Araudiaren arabera, kapital sozialari egindako ekarpena dela-eta bazkideei ordaindutako sariak ez dira Sozietatearen ustiapen-kostu edo -gastutzat hartuko, Kooperatiben legeria fiskalean ezarritakoa alde batera utzi gabe.

53. artikulua. Soberakinen aplikazioa

Bat. Emaitzen kontuko saldo hartzekoduna, aurreko artikuluan adierazi den moduan finkatua, izango da ekitaldiko soberakin garbia. Aurreko ekitaldietako galerak estali eta ordaindutako kapitalerako interesak kendu ondoren finkatuko da soberakin erabilgarriaren zenbatekoa, legeak ezarritako mugak gainditu gabe, jakina.

Bi. Soberakin erabilgarria honela banatuko da, nahitaezko kapitalari edo kaudimen-koefizienteari erantzuteko sortzen diren obligazioak betetakoan:

- a) 100eko 50, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Funtsera.
- b) 100eko 25, gehienez, Sozietatearen eta kooperatiben arteko sustapen-beharrei erantzuteko. Zehazki, 100eko 10 gutxienez Heziketako eta Sustapeneko Funtsera bideratuko da, eta 100eko 15, gehienez, Kooperatiba arteko Funtz Sozialera.
- c) Gainerakoa Batzar Nagusiaren esku geratuko da, eta hark honela banatu ahal izango du: bazkideentzako itzulkinetarako, Borondatezko Erreserba Funtsetarako edo antzekoetarako.

Kooperatiba-itzulkinetarako zenbatekoa erdibanatu egingo da lan-bazkideen eta gainerako bazkideen artean.

Lan-bazkideek beren lan-aurrerakinen arabera jasoko dute bazkideentzako itzulkina, eta gainerako bazkideek Kooperatibarekin egindako eragiketen arabera.

54. artikulua. Galerak nola egotziko diren

Ezingo da kapital sozialean galerarik egotzi, baldin eta Kooperatibak borondatezko edo nahitaezko erreserba-funtsik badu, eta, egotziz gero, ekarpen guztiei eragingo diete, haien balio nominalaren arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa errespetatuz, Batzar Nagusiak erabakiko du galeren zer zati egotzi Nahitaezko Erreserba Funtzari edo, egonez gero, borondatezko erreserba-funtsei, eta hala ere beharrezkoa izanez gero, kapital sozialetik zer zati itzuli estornu kooperatibo gisa.

V. kapitulua. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

55. artikulua. Desegiteko arrazoiak

Bat. Hauek dira Kooperatiba desegiteko arrazoiak:

- a) Batzar Nagusiak bertaratutako eta ordeztutako bazkideen bi hereneko gehiengoarekin hala erabakitzea.
- b) Arrazoi justifikaturik gabe Kooperatibako organoak edo jarduera bi urtez geldirik egotea eta, ondorioz, funtzionatzeko modurik ez egotea.
- c) Bazkide-kopurua legeak finkatutako minimotik behera jaistea edo kapital soziala Estatutu hauetan ezarritako minimotik behera murriztea, eta urtebetean egoera ez leheneratzea.
- d) Helburu soziala lortzea edo hura lortzerik ez egotea.
- e) Bat-egitea, xurgapena eta erabateko zatiketa.
- f) Legeriak finkatutako bestelako edozein arrazoi.

Bi. Bat ataleko b), c), d) edo f) kasuak egokituz gero, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusirako deia egin beharko du, delako kasuaren berri izan eta hilabeteko epean, Batzarrak hartu beharko baitu desegiteko erabakia. Ildo horretan, bazkide guztiek izango dute Kontseilu Errektoreari Batzar Nagusirako deia egin dezala eskatzeko eskubidea, desegiteko bidezko arrazoiren bat dagoela uste badute.

Desegiteko erabakia hartzeko, aski izango da botoen gehiengo soila lortzea. Batzarrerako deirik egin ez bada edo Batzarrak ez badu desegiteko erabakirik hartu, edonork eskatu ahal izango du Kooperatiba judizialki desegitea.

Hiru. Sozietatea desegin eta gero, likidazioari ekingo zaio, bat-egite, xurgapen edo banaketetan izan ezik.

56. artikulua. Likidazioa

Bat. Likidazio-garaia irekitakoan, hiru likidatzaile izendatuko ditu Batzar Nagusiak, eta indarrean dagoen legerian ezarritako funtzioak izango dituzte.

Desegin eta 2 hilabetera ez bada likidatzailerik aukeratu, Kontseilu Errektoreak edo beste edozein bazkidek izango du lehen auzialdiko epaileari haiek izendatzeko eskaera egiteko eskubidea.

Bi. Sozietateko botoen % 20k egin ahal izango dio lehen auzialdiko epaileari likidazio-eragiketak fiskalizatuko dituen kontu-hartzailea izendatzeko eskaera.

Hiru. Likidatzaileak izendatu arte, Kontseilu Errektoreak jarraituko du Sozietatearen ordezkaritza- eta gestio-lanak betetzen, Sozietateak jarduerarik ez izatearen ondorioz kalterik sor ez dadin; Sozietatearen ondasunei iraunaraztea ere haren erantzukizuna izango da.

Lau. Likidatzaileak izendatutakoan, eta horiek lanean hasi aurretik, Kontseilu Errektoreak likidazioari ekin zaion egunari dagozkion inbentarioa eta balantzea sinatuko ditu haiekin batera.

Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritzako kideek ezinbestez eman beharko dizkiete likidatzaileei, likidazio-eragiketak errazteko eskatzen dizkieten informazioa eta aurrekariak.

Bost. Sozietateak kaudimenik ez badu, konkurtso-deklarazioa eskatu beharko dute likidatzaileek, konkurtso-legerian ezarrita dauden epeetan.

Sei. Ekarpenek, haien itzulketari uko egin bazaio ere, ez dute haien artean inolako pribilegiarik izango, eta, bereziki, ez ordenari ez zenbatekoari dagokienez, Kooperatibaren konkurtsoaren edo likidazioaren kasuan. Sozietatearen ondasunak bazkideek kapitalera egindako ekarpenen balio nominalaren arabera esleituko dira, sozietate-zor guztiak ordaindu ondoren.

57. artikulua. Sozietatearen ondasunak eta azken balantzea nola esleituko diren

Bat. Sozietatearen ondasunak ezin izango dira ez esleitu eta ez banatu, harik eta sozietate-zor guztiak kitatu, esleipena egin eta mugaeguneratu gabeko kredituak ordainduko direla bermatu arte.

Bi. Zor horiek kitatutakoan, Sozietatearen gainerako ondasunak ordena honen arabera esleituko dira, menpeko finantzaketan hitzartutakoari kalterik egin gabe:

- a) Heziketako eta Sustapeneko Funtsa Kooperatiba elkartuta dagoen federazio-erakundearen esku geratuko da. Halakorik ez badago, Batzar Nagusiak erabakiko du zer federaziori emango zaion.
- b) Bazkideei egiaztatuta duten kapital sozialerako ekarpenen zenbatekoa itzuliko zaie, aurreko ekitaldietako irabaziak edo galerak ordaindu edo kendu ondoren, eta hala badagokio, eguneraturik. Ekarpenak itzultzean, guztiek izango dute maila bera, eta ez da inolako hurrenkerarik izango ekarpenen artean, bazkide- edo ekarpen-mota edozein dela ere.
- c) Borondatezko erreserba-funts banagarrietako partaidetzak itzuli egingo zaizkie bazkideei.
- d) Gainerako ondasun likidoak, baldin baleude, Batzar Nagusiak erabakitzen duen kooperatibaren edo federazioaren esku jarriko dira.

Hiru. Sozietate-zorrak kitatu ondoren, azken balantzea egingo dute likidatzaileek, eta Batzar Nagusiak onetsi beharko du, bai eta, aurreko atalean adierazitakoari jarraikiz, aktiboa banatzeko egingo den proiektua ere.

58. artikulua. Azkentzea

Likidazioa bukatu ondoren, Sozietatearen azkentze-eskritura publikoa egingo dute likidatzaileek, eta legeak eskatutako edukiak jasoko ditu eskriturak. Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dute, eta bertan utziko dituzte Kooperatibaren liburuak eta dokumentuak.

Lehen Xedapen Gehigarria. Epeak nola zenbatuko diren

Estatutu hauetan egunka finkatu diren epeetan, lanegunak hartuko dira kontuan, ez jaiegunak.

Hilabeteka edo urteka finkatutako epeak, berriz, datatik datara iraungo dute. Muga-egunaren hilean hasierako egunaren parekorik ez badago, hilabeteko azken egunean bukatuko da epea. Eta, azken eguna laneguna ez bada, hurrengo lehen lanegunera luzatuko da epea.

Xedapen iragankor bakarra. Iraupen mugatuko lan-bazkideak

Kooperatibarekin iraupen mugatuko sozietate-lotura duten bazkideek, Entitatearen Estatutuetako 5. artikuluko figura hori ezabatu aurretik (2024ko apirilaren 27a baino lehen) hasi bazen lotura, gehienez ere 2026ko abenduaren 31ra arte eutsiko diote lotura horri. Egun horretatik aurrera, ezingo da horrelako loturarik izan Entitatearekin.

